

**2023KO URTARRILAREN 25EKO BATZAR  
NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE  
FECHA 25 DE ENERO DE 2023 (TRADUCCIÓN)**

## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Tratu txarrak eta sexu erasoak jasandako pertsoneri laguntza psikologikoa emoteko foru-programea.”.....	4
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	4
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea .....	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	9
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea .....	10
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Bilboko Metropoliko Trenbidearen 5. linearen informazio-azterlana.”	11
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	11
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	15
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	17
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	18
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Urdaibain Guggenheim handitzeko proiektuaren zilegitasuna.” ....	19
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	19
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea .....	21
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	24
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	25
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren eta seigarren puntuak irakurri dauz: “Haurrentzako arreta goiztiarra.” eta “Arreta goiztiarra.”	26
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	27

- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	27
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	27
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	29
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	30
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	30
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren eta zortzigarren puntuak irakurri dauz: “Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zerga.” eta “Fortuna Handien ganeko Alkartasun-Zerga Euskadin aplikatzea.” .....	31
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	32
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	32
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....	33
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	35
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....	36
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Hainbat gizarte-erakunderen partida ekonomikoak handitzeko eskaerari erantzuteko Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko dituan neurriak.” .....	37
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	37
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	37
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	38
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	39
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Bizkaibus zerbitzuaren etorkizuneko lizitazioak.” .....	40
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	40

- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea ..... 41
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 41
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea ..... 42
- Batzarra amaitu da..... 43

2022ko urtarrilaren 25eko batzarra  
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 25 de enero  
de 2023 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Señor Diputado General, señores y señoras diputados/as, estimados y estimadas junteros/as, también los que están en las tribunas de invitados y los miembros de los medios de comunicación, buenos días también a ustedes, y gracias una vez más por su presencia, y cómo no a todos los ciudadanos que seguirán esta sesión a través de streaming, bienvenidos todos.

Comenzamos con el orden del día de hoy, con el primer punto, que dice, señor Secretario.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak: Buenos días.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2023/0000042](#))

**Autor:** Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

**Asunto:** Programa Foral de atención psicológica a las personas que han sufrido malos tratos y agresiones sexuales.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2023/0000042](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0004128](#))

1.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2023/0000042SE](#))

**Egilea:** Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Tratu txarrak eta sexu erasoak jasandako pertsonen laguntza psikologikoa emoteko foru-programea

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000042SE](#))  
**Espedientea:** ([11/B/18/0004128](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra la juntera que ha presentado la moción. Por tanto, tiene la palabra la señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Laespada andrea, abiapuntutzat hartzen dot danok tratu txarrak eta, jakina, sexu-erasoak gaitzesten doguzala. Abiapuntutzat hartzen dot indarkeria matxistak eta genero-indarkeriak desagerrarazteko konpromiso indibidual eta kolektiboa guztion gogoetan dagoala. Abiapuntutzat hartzen dot helburu bera lortu guran, Foru Gobernuak martxan jarten dituan bitartekoak argi eta garbi ez dirala nahikoak izan, eta uste dot beharrezkoa dala autokritika egitea alde horretatik.

Arreta psikologikoa eskatzen dauen persona bati 12 aste atzeratzea gertatu daiteke, zure Sailak onartu dauen lez, baina horrek preminazko hausnarketa bat ekarri behar

dauela uste dogu, behar dan arreta berehala emotea ahalbidetuko daben neurriak martxan jarriko dauzana, eta, batez be, behar-beharrezkoa dalako. Izan be, tratu txarrak eta arreta psikologikoa dira, halakoetan ezinbestekoak diranak, eta osasun-zerbitzuek arreta handiagoa emon beharko leukiela esaten dogu. Egia da eremu hori ez dala gure eskumenaren barruan sartzen, baina, era berean, uste dot Osakidetzaren arreta egokia gutako bakotzak eskatu beharko leukela erantzukizun horreek daukiezan erakundeetan.

Era berean, operadore juridikoetan prestakuntza handiagoa egon beharko litzatekela uste dogu, eta horri jagokonez egiten dabilzan ahaleginak, barriro be gure eskumenak gaintitzen dabezan arren, Aldundiarentzat lan egiten daben teknikariek egiten dituen txostenak auzitegietan alde baten txostentzat hartzea. Lan egin beharko da eta horretan tematu, baina ez dago Batzarretxe honek edo Foru Gobernuak hartzen dauen erabagiaren esku bakarrik.

Laespada andreak Batzar honeetan egindako agerraldian zehaztu eban 2.000 persona ingururi emon jakela arreteak 2021ean, preminazko kasuak, esan euskun, berehala artatzen zirala, eta beste egoera batzuetan 12 astera arte itxaron behar dala, batez be Bilboko eremuan emoten dan zerbitzuan, kontuan hartuta zerbitzu hori deszentralizauta dagoala. Eta, ganera, zoritxarrez, zerbitzu horrek eskari handia daukala, eta eskaria handitzen doala. Horrez gain, adierazo eban Foru Aldundiaren webgunean zerbitzu hori beste instantzia batzuetatik bideratzen danean eta benetan emoten dala adierazoten dala, eta eskatzen dala Foru Aldundiaren edo Aldundiaren edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, edo Emakumearen edo Bardintasunaren udal arloaren, beste erakunde batzuen edo beste profesinonal batzuen emakumeen eta familien esku-hartze zerbitzua. Hauxe da formularioa, Aldundiaren webgunean eskegita dagoan eskabidea.

Halanda be, esaten jaku ez dala bideratze hori behar eta, benetan, Talde Popularrak poztu egiten gara horregaitik. Gure ustez emoten dan informazio hori aldatu egin beharko litzateke, izan be, baleiteke emakume batzuek zerbitzu hori behar izatea, eta horreek eskatzerakoan atzera egitea, erakundearen orrialde ofizialetan adierazoten dana kontuan hartuta. Izan be, beharrezkoa dan arreta psikologikoa da hemen darabilguna, eta andrak, andrak dira gure ardura. Izan be, han esan zan moduan, zerbitzu horreetara joaten diran personen % 95 inguru neskatoak eta emakumeak dira, eta zerbitzu hori eskatzen dabe. Eta ulertu behar dogu azken hori, arreta psikologikoa, tratu txarrak dagozanean, sexu-erasoak dagozanean, edo baita tratu txar psikologikoak dagozanean be, eta, batez be, azken horretan esan gura genduan tratu txar sotila dala, askotan denporan zehar sortutakoa, batzuetan lesinoen parteagaz probau ezin dana, eta biktimak urteak behar izan leikezana halan dala jaubetzeko.

Eta hori dinogu, esan jakulako, kasu batzuk ez dirala preminazkotzat jotzen, eta dei bategaz, besterik barik, emon beharreko arreteak preminazkoa dan ala ez zehazten dalako. Hori, jakina, defizit handia iruditzen jaku, eta, batez be, askotan tratu txar psikologikoa indarkeria suntsitzailea dalako, eta uste dogu guztion erantzukizuna dala indarkeria hori ikusarazoten laguntzea, biktima diran emakumeek laguntza, informazioa, aholkua eta, batez be, arreta bila deitu dagien. Izan be, askotan uste dot hausnarketa egin beharko geunkela garrantzitsuan zentrau gaitezana, hau da, salaketak aurkeztu beharko geunkezala holango gertakariak edo delituak gertatzen diranean. Baina egia da Talde Popularratik uste dogula salaketak oso garrantzitsuak dirala, baina garrantzitsua da, era berean, persona horreek beharrezko arreta eta laguntza psikologikoa izatea, gero salaketa horreek aurkeztu ahal izateko behar besteko indarra euki daien. Izan be, psikologikoki indartsu egon barik salaketa jarri leiken personea birbiktimizatua izan daiteke, edo ondorio kaltegarria be euki leike.

Horregaitik, Talde Popularratik uste dogu, eta partekatua izatea espero dogu, laguntza psikologikoa funtsezkoa izatea, laguntzea, ulertzea, orokorrean, beharrezkoa dala, salatu ahal izan aurretik. Horregaitik, larritu egin ginduzan zure baieztapenak, Laespada andrea: larrialdiko kasuak artatzen dira, eta beste batzuetan laguntza hori lau hilabetera atzeratu daitekeela. Lau hilebete dira dana, bizitza oso bat, bizitza oso bat tratu txar fisiko eta

psikologikoak jasaten dagoan persona batentzat. Konturatzen gara beren indarra murriztuta daukien personak dirala, autoestimua zaurituta daukiela, eta erreazinonatzeko gaitasuna askotan ia deuseztatuta. Ze hori da egoera. Eta 12 aste itxarotearren ez dala ezer gertatzen esatea, ez dala preminazkoa uste dalako, jakina, behar dan arretarik ez emotea dala iruditzen jaku. Gainera, konturatzen gara, zoritxarrez, gehienetan urteak pasetan dirala emakume batek bere egoeraz ohartarazo baino lehen, askotan botiken urtenbidea baino ez jakezala eskaintzen, bizi daben egoeran sartu barik, ze uste dot guztiok horretaz jaubetu behar dogula eta hausnarketa hori egin.

Laespada andrea, badakit gai honetan eskutik joan behar dogula, badakit zerbitzu honek daukazan beharretan bat egin behar dogula edo egin geinkela, baina txarto dator esatea azken urteotan baliabide ekonomiko gehiago bideratu dirala, eta, aldi berean, baliabideak, ikusten danerako eta ezagutu doguzan datuakaitik, ez dirala nahikoa. Eta ez dau balio esateak egia dala Osakidetzak zerbitzu gehiago emon beharko leukezala, hori, esan dodan moduan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuek zor daben bultzadearen arabera izango dalako. Baina guri jagokunez, uste dogu garrantzitsua dala Foru Gobernuak arreta psikologiko hobea emotea, zuei baliabideak nahikoak dirala iruditzen bajatzue, edo ez dagoz ondo antolatuta, edo zerbitzuak defiziten bat dauka. Barriro dinogu, ez jaku onargarria iruditzen inork lau hilebete itxaron ahal izatea beti preminazkoa dan egoera honetan artatua izateko, BETI da preminazkoa.

Eta, horregaitik, Laespada andrea, galdera hau egiten deusugu: zer neurri hartu gura ditu zuzentzen dozun Sailak Bizkaian tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituenentzako arreta psikologikoko zerbitzua hobetzeko? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. En el turno de respuesta tiene la palabra en nombre de la Diputación la señora Laespada.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Martínez andrea. Lehenengo eta behin, gracias, señora presidenta.

Lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deusudaz zure interpelazinoagaitik, barriro be hain gai garrantzitsu eta delikaduaz berba egiteko eta indarkeria matxista erdiunean jartzeko aukera emoteagaitik. Zeuk esan dozu eta barriro dinot, hilaren 22an egin genduan agerraldi zabal batean, Euskal Herria Bildu Batzarkide-Taldeak eskatuta. Nik uste dot ordu eta laurenean zerbitzua ondo baino hobeto azaltzen ahalegindu nintzala, baina susmoa daukat ez dozula oso ondo ulertu zerbitzua zer dan, bestela ez zeunke interpelazino hori egingo. Pedagogikoagoa izango naz, arlo honetan eta une honetan halan izatea espero dot, eta interpelazino bat egitea, edo gitxienez erantzun desbardin eta pedagogiko bat, agian hobeto ulertu daidazuen. Zehaztasun bi. Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dabezan personei laguntza psikologikoa emoteko zerbitzua hobetzeko dinozu. Zehaztasun bi.

Lehenengoa, tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dabezan pertsonak aitatu dozuz, eta ez da Sail honen xede, ezta ardura be, eta ez da etxeko tratu txarren eta emakumeen eta seme-alaben aurkako sexu-erasoen egoeretarako arreta-zerbitzua. Beraz, lotu daigun eta argi euki daigun zein dan gure xederako biztanleria, hau da, emakumeak, eta seme-alabak. Egia da erasotzaileen kasuak be kontuan hartzen doguzala, baina ez dogu ardurarik hartzen gizonen aurkako erasoei, bereizteagaitik dinot, eta danok argi euki daigun, zerbitzua norantz doan. Beraz, emakumeak, eta seme-alabak dira.

Eta, bigarren, Batzordean be egin neban lez, egoera arruntetan arreta terapeutiko psikologikoa emoteko itxaronaldiak egoteak ez dau esan gura biktimak artatzen, orientetan eta zaintzen profesinonalik ez dagoenik. Itxaronaldia zerbitzu bati buruzkoa da, baina

Aldundiak emakumeei eskaintzen deutsezan zerbitzuak arreta psikologikoa baino askoz be zabalagoak dira. Uste dot hori garrantzitsua dala, ze antza ez zan argi geratu, emoten dauelako zuek eta oposizinoako beste talde batzuek arreta psikologikoa baino ez dozuela hartu, eta zerbitzuak arreta psikologikoa baino askoz zabalagoak dira, hori tresna bat da eta.

Zeregin horretan, talde batzuek arreta presentziala emoten dabe, Eusko Jaurlaritzaren Osategi telefonoa dago. Profesional batzuek zaintzak, beharrak, adorea eta laguntza egokitzen dabez, eta profesionalak dira personei emon behar jakezan zerbitzuak eta prestazinoak zehazten dabezanak edo zehaztu beharko leukiezanak.

Banakako arreta psikoterapeutikoa ez da eta ez da izan behar tratamendu preskriptiboa, bizirik dagozan personeren beste premina-egoera batzuei erantzun barik geratu leitekez eta; laguntza informaleko sarea behar izan leikie; seme-alabakaz egoerari aurre egiteko zaintzak behar izan leikiez; etxebizitza-premiak izan leikiez; nahitaez hedatu beharreko beste baliabide batzuk dira. Beste une batzuetan beste zerbitzurik ez egoteak, halan zelan esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak edo gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak, ekarri dau pentsetea bat-batean emakumeen esku-hartze psikoterapeutikoa bakarrik lantzen dala. Eta hau ez da holan. Eta horixe da, hain zuzen be, gu lantzen gabilzana, arreta unibersaleko zerbitzuak emoteko beharren gabilz, eta zerbitzu hori, arreta psikoterapeutikoko zerbitzua, guztiz ezinbestekoak diran beste sistema eta zerbitzu guztiakaz osotzeko.

Batzordean azaldu neutsuen, eta barriro aitaturko dot. Esku-hartze psikosozial eta sozioedukatiboko hainbat zerbitzu eta laguntza daukaguz eta martxan jarri doguz: SUA, AILARA, ZERIZAN, ORRATZA. Horreek guztiek arreta emoten deutsee andrei, hareen familiei; Txikiak programa umeentzat; eta, gainera, martxan jarri doguz programa esperimentalak, programa bat familiakaz, eta laguntza soziala, 2023an jarraituko dabenak.

Nire ustez, garrantzitsua da, jakina, zer hobetu badagoala, beti dago zer hobetu. Eta, gainera, zer hobetu dago, emakumeen gizarte-egoera aldatuz doalako, eta ahaleegintzen gara zerbitzuak egokitzen joatea esku-hartze sozial horretara eta andrek behar daben esku-hartze psikoterapeutiko horretara, etenbako hobekuntzako erespidegaz, hain zuzen be. Baina nik nire zerbitzuak ebaluetan dodaz, eta ebaluazinoak egin daikeguzan neurrian ebaluetan goaz zerbitzu guztiak, eta indarkeria matxistaren biktimei arreta espezializaua emoteko 21. urtean egin euskuen zerbitzuaren ebaluazinoak esaten deuskunez, galdetutako erabiltzaileen % 94k "nahiko" edo "oso ona" balorazinoak emoten dabez, 10etik 8,3ko puntuazinoak lortzen ditu. Kasuen % 88ren eretxiz, "Bikaina" zan, eta generako tartea, % 100erainokoa, "oso ona".

Beraz, hor badago zerbitzuaren kalidadeari buruzko beste datu bat. 2021ean 1.621 persona artatu ziran, 2022an, 1.511. Guztira, 3.132 kasu urte bian. 3 kexa baino ez dira jaso, 3, Laguntzaile zerbitzuagaitik ganera, ez dira Aldundiaren erregistroan jaso be egin. 3, % 0,09. Bide batez, kexek erantzuna hartu dabe garaiz eta behar dan moduan. Jarraipena egiten dogu, esan daigun ebaluazino jarraitua, eta, jakina, ez dot uste hobetzeko tarte handia daukagulako hori oso erreala danik, uste dot ezin dala aplikau zenbat eta okerrago, hobeto, zuk ondo esan dozun moduan, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeen hain egoera delikadu eta berezian.

Zerbitzua hobetzeko zer neurri hartzen gabilzan eta hartuko doguzan galdetu deustazu. Eten barik hobetzen, etenbako hobekuntza, denpora guztian begiratur zelan artatu daikeguzan emakume gehiago eta zelan egokitzen garen Istanbulgo erispide barrietara, zelan sartzen diran emakumeak sisteman, jakina, eta zelan edegi atea sistema barriari. Beraz, lehenengo eta behin, begirada feministea, eta emakume bakotxaren arretetara egokitutako genero-ikuspegidun begirada sexologikoa, emakumeak ahalduntzea, erasotako emakumeek euren gaitasunak garatzea, eta emakumeek euren bizitzeari barriro ekitea, oso garrantzitsua iruditzen jakun isolamendu errazionaletik urten. Emakumearengan holako blokeoak eta



zailtasunak zabaltzen dira indarkeria luzearen ondorioz, emakumearengan eta harreman-ingurunean. Esan lez, Istanbulgo Hitzarmena ezartea.

Esnatu zerbitzuan be badauka eragina. Batzordean esan neutsuen, eta barrero dinot orain, estrategia barriak behar dira, arreta dibersifikatuak, emoitza hobekak ahalbidetuko dabezanak eragin psikoedukatuak eta psikosozialakaz, ez bakarrik psikoterapeutikoak. Ez dira beti arlo klinikoan amaitzen, ez dabe beti behar eragin klinikorik, laguntza behar dabe eta euren bizitzan behar dituen beharrak eta behar dituen laguntzak argitzen joan behar dabe. Baina terapia psikologikoa ez da beti urtenbidea.

Bigarren, etorkizunerako kalidade estandarrak igoten dituan Zerbitzuen Karta Aldundiaren webgunean dago eta Zerbitzuen Karta ezagutu ahal izango dozu. Gure buruari 8,5eko batez besteko notea ezarri deusagu, proponiduten doguzan item guztiengaitik, eta eskura daukazu.

Hirugarren, arreta psikologikorako zerbitzua Bizkaiko eskualde guztietan zabaltzen eta deszentralizetan jarraitzen dogu, eta hurbiltasuna emoten, espazioak hobetuz, Bilbon espazio fisiko zentralizatu bat, kalidadekoa, berotasunezkoa, biktimen intimidaderik handiena eskaintzen eta zaintzen dauena, biktimarioak eta biktimak bereiziz.

Laugarren, arreta-prozedura eta larrialdiko arreta amaitzen gabiliz, ze 2007ko indarreko araudia zaharkituta geratzen da eguneko egoeretarako. Andren esku-hartze guztia arindu eta desburokratizatu behar da, jakina. Eta emakumeek zerbitzuetarako daukien sarbide osoa.

Bosgarren, zerbitzuaren autopreskripzioa saihestea, teknikoa eta, aldi berean, konplejua dana. Andrek ezin dabe beren burua preskribidu, arreta terapeutikoa behar dot. Andra horrek arreta terapeutikoa behar dauela agintzen dauen profesinonal bat egon beharko litzateke, eta hori oso garrantzitsua da, eta esango deusut zergaitik dan garrantzitsua. Garrantzitsua da, artatutako kasuen bazterketa-kopuru handia dagoalako, hasitakoan % 8k ez dabe jarraitzen, bertan behera itxitakoak % 16, eta eskaerea egin eta gero joaten ez diran emakumeen % 35ek jarraitzen dau modu jarraituan eta iraunkorrean. Beraz, pentsau behar dogu kasuen ia % 50etan arreta terapeutikoaren autopreskripzioa dagoala eta ez dauela prozesuan jarraitzen, eta horrek be, zeozelan, zerikusia dauka itxaron-zerrendakaz, hain deigarria iruditzen jatzuna, eta zerikusia dauka egoera horreek eragozteko martxan dagozan sistemakaz.

Seigarren. Aurtengo aurrekontua % 22,89 igon da. 935.000 €tik 1.150.000 €ra pasau gara.

Zazpigarren. Gaur egun lau hizkuntzatan eskaintzen da terapia: gaztelaniaz, euskeraz, ingelesez eta frantsesez, eta lizitazioan beste hizkuntza batzuk gehitzeko aukera aterako dogu, beti be une honetan zerbitzuan dagozan langileen eskubideak errespetauz.

Zortzigarren. Beste lizitazio bat, online arreta psikologikoa emoteko saioa eskaintzea balorau da.

Bederatzigarrena. Erabagi dogu, lehen esan dodan lez, erasotzaileak geografikoki bereiztea eta zerbitzu desbardin bi eskaintzea leku bitan.

Eta hamargarren. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei eskainiko deussegun arreta psikologikoko zerbitzua bideratzeko protokoloak antolatzen gabiliz, lehen mailako arretagaz lan egitea, udalakaz eta deribazioakaz lan egitea, sistema osoaren eta guztion artean ahalik eta arretarik onena emoteko gai izan gaitazan, hobetzeko eta eten barik hobetzeko.

Hamaikagarren. Gainera, aurten adingabeei arreta psikologiko integratu hobea emoteko ildo bat proponiduten dogu, adinbakoentzako arreta-lerroa hobetzea.

Eta hamabigarren eta ez garrantzi gitxiagokoa, sexu-indarkeriaren biktimantzako arretean, dakizuen bezala, preminazko krisiaren arretarako zentro barriak.

Ez dogu eskumenik arlo horretan, eta batzordean esan neutsuen. Horrek ez dau kentzen, Eusko Legebiltzarrean oraintsu onartu dan Bardintasun Legeak eskumena Eusko Jaurlaritzan eta Osakidetzan jartzen daudelako, baina horrek ez dau esan gura andra horreei arreta emoteari itxiko deusagunik. Emakumeei euren berme eta neurri guztietan eta aukera guztietan emongo jake arreta, eta arreta psikologikoa egin egin beharko da. Osakidetzak bere gan hartzen ez dauen bitartean geuk beteko dogu. Zalantzarik barik, laguntzen gabilz, eta eskumen-aldaketa horren ondorioz, oso zuhurrak izan behar dogu lizitazioa eta sistemaren lizitazio-prozedura ateratzeko orduan. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Laespada. Tiene la palabra para responder la señora Martínez Fernández. Les aviso de que el segundo punto del orden del día ha sido retirado; esatea, gai-zerrendako bigarren puntua erretiratua izan dala.

Dicho esto, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea.

Laespada andrea, badakizu zer gertatzen dan? Hori benetan jazotzen danean, arreta integrala behar da, eta egia da daukagun erakunde-sarea eta daukagun eskumen-sarea daukagula. Eta, hain zuzen be, emakume batzuek, arreta psikologikoa ez eze, egoitzabaliabideak be behar ditue, eta hori Eusko Jaurlaritzatik, udaletatik be etorri beharko da, Aldundiak ez daukalako eskumen hori. Beste era bateko baliabide ekonomikorik, hezkuntzabaliabiderik behar ete daben be ikusi beharko da, baina nik uste dot, edo nire hitzaldiaren hasieratik behintzat hori esaten ahalegindu naz, guk eskumena daukagun horretan zentrau naz, gitxienez zerbitzua emoten gabilz. Eta Osakidetzak bere lana egiten ez badau behar dauen moduan, horrek ez dau esan gura guk esan geinkenik ba guk be ez dogu egingo.

Niri gaur hemen emon deustazun erantzunetik gustauko jatana da, jakinda administrazio honetan eta ganerako administrazioetan hobetzeko tarte handia dagoala oraindino, zuk esatea: begira, konpromisoa hartzen dot urte honetan zehar persona bakar batek ez dauela 12 aste itzarongo arreta psikologikoko zerbitzua hartzeko. Baina zuk dozu konpromiso hori hartzen, eta oso larria deritzot. Ikzan be, deszentralizatu egin beharko da, edo profesinonal gehiago euki beharko dira, edo zelan konpondu daitekeen ikusi beharko da. Baina uste dogu itxaron-zerrendaren gai hori kontu larria dala, beste administrazio batzuek lan egiteaz eta lankidetzan jarduteaz harago, behar dan arreta guztia euki daien. Eta, halanda be, zoritxarrez, konpromiso hori, zuk ez dozu gaur hona ekarri gura.

Nik ez dot zalantzan jartzen zerbitzua edo gogobetetze-maila. Hain zuzen be, Talde Popularretik gure lehenengo esku-hartzean esan gura izan doguna da gure ustez funtsezkoa dala indarkeria matxista, genero-indarkeria jasaten dabenentzako arreta psikologikoa funtsezkoa dala, indarkeria hori suntsitzailea dalako, emakumeak autoestimua guztiz jota ixten ditualako, arazo oso larriakaz, eta indar handia behar dalako egoera horretatik urten eta aurrera egiteko.

Eta, jakina, inguruaren babesa behar da, askotan eukiten dana, eta beste batzuetan ez. Hor ezin dogu guk ezer egin, baina erakundeen babesa, horretan bai, % 100 jarri behar da. Eta oso ondo dago zerbitzuaren balorazioa % 80koa izatea, baina kasu honetan ez da nahikoa argi eta garbi, % 100 euki behar dogulako, hori izan behar dalako erakunde guztien konpromisoa. Lehenengo eta behin, ez bideratzea beste batzuek daukiezan eskumenetara, eta indarkeria matxistaren biktima dan emakume baten sarbidea Foru Aldundiaren arreta psikologikoko zerbitzua bada, hori izan dalako sartzeko bidea, gero, jakina, aholkua emon eta behar dituan beste baliabide batzuetara bideratu arren, ez dot uste zentrau behar garanik hori autopreskripzioa dan edo ez. Zuk dinozu gero zerbitzura joaten ez diran emakumeen ehunekoa ez da oso handia, % 8 eta % 16 aitatu dozu adibide bitan. Eta zergaitik ez diran joan jarraitzen da. Jarraipena egiten da, egoera oso larria bizi daben personak diralako, sarritan arazo asko eukiten dabezanak, eta, esan deusuedan lez, askotan euren gaitasunak eta askotan indar psikologikoa oso murriztuta.

Beraz, niri bardin jat laguntza psikologikoko zerbitzuaren bidez sartzea. Nik, Talde Popularretik eskatzen doguna da genero-indarkeriaren biktima dan edozein andrak, edozein andrak, indarkeria matxistaren biktima dan edozein neskatok, edozein dala be sarrera, bardin deust zein administrazinoren edo zein zerbitzuren bidez daukan merezi dauen arreta integrala. Eta Foru Aldunditik hori bermatzeko kapaz ez garan bitartean eta zerbitzu hori 12 astez bideratzen ez dogun bitartean, uste dogu ez gabilzala behar dan lez egiten jagokun zerbitzua.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. Le responde en nombre de la Diputación la señora Laespada.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Ba bai, egin dogu azterketa. Jakina azterketa egin doguna. Edo ez dogula azterketarik egiten uste zenduan? Jakina. 200 kasu. Ontxe gabilz triajea egitea, eta 200 kasuetatik, orain arte 68 aztertu ditugu. Azalduko deusut.

6 kasutan ez dabe arretarik gura, 4ri arreta ukatu jake indarkeria matxistaren arretagaz zerikusirik ez daukien eskaerak aurkezteagaitik, beste eskatzaile batzuei beste baliabide publiko edo pribadu batzuek erantzuten deutsee eta gugaz ez jarraitzea erabagi dabe. Hainbat kasu, zure erreferentzien arabera, oinarritzko gizarte-zerbitzuetara, osasun mentaleko zentroetara, adinbakoentzako arreta psikologiko espezializauko programetara eta beste batzuetara bideratzen dira, emakume adinbakoak be badaukaguzalako, eta adinbakoen sistemetan edo hirugarren sektoreko beste zerbitzu batzuetan artatzen dira, talde-terapia motako talde-baliabideakaz.

46 kasu benetakoak dira; horreetatik 28ri arreta psikosozialeko programa bat agindu jake, eta 18ri bakarrik agindu jake arreta psikoterapeutikoa, hau da, kasu guztietatik 26,50ek arreta psikoterapeutikoa behar dabe, gainerakoek ez.

Uste dot sistemeari eta zerbitzuari buruzko ezjakintasun handia daukazula, eta animau egiten zaitut nasai berba egin daigun, edo agerraldi bat eskatu deidazun, eta nik sistema osoa azalduko deusut. Izan be, arreta psikologikoa ez eze, Martínez andrea, egoitza-baliabideetan be emoten dogu arrete, umeak daukiezan eta oso gazterik ama izan diran andrei emoten deutsegu arrete. Laguntza juridikoa daukagu, zabalera handikoa, eta, gero, kontau deusudazan arreta psikosozialeko eta sozioedukatiboko programa guztiak. Emakumeei arrete emoteko programa-mota zabala daukagu, eta emakumeek euren kabuz arreta psikologikoa eskatu, eta ez egin edo ahal izan eta zuk eta pentsetea ez dabela egiten, ez dabela arretarik eta gainerako zerbitzurik hartzen, akats larria be larria dira.

Nik, agerraldian, gardentasunez emon nebazan galdetu zeustienaren emoitzak, baina galdetu eidazue gainerako zerbitzuei buruz, mesedez, egin arreta eta zabaldu begiradea gainerako zerbitzu guztiei, eta ikusiko dozue andrak, danak, arreteja jasoten dabela, danak, salbuespenik barik. Arreta behar daben guztiak hartzen dabe, beraz, ez daigun gai honegaz, mesedez, ez daigun gai hau lokaztu, andrei kalte egitea baino ez dogulako lortuko. Niri ez deust kalterik egiten, andrei egiten deutsee kalte eszenatokiaren erdian hain egoera konplejua eta delikadua jartzen deutsegunean. Jakina, danak dagoz arreta hartzen ahal dan neurrian eta baliabideak kudeatzen diran neurrian. Ze barriro esango deustut, gehien-gehienek bestelako baliabideak behar dabez, eta ez eurek arreta psikologikoan egindako autopreskripzioa.

Aldi baten, Aldundiaren zerbitzuetara sartzeko bidea izan zan, baina Gizarte Zerbitzuen Legetik sarbide-sistema barriak eratu doguz, eta hori da ulertu behar doguna: oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, udaletako bardintasun-zerbitzuetatik bideratzea, udal-arkitektura funtsezkoa eta ezinbestekoa dala ulertzea, eta euretako askok benetan etxebizitza behar dabela ulertzea. Nik hilero sinatzen dodaz Eusko Jaurlaritzari egindako etxebizitza-eskaerak, berehala eskuratzekoa dana, jakin daizun. Andra bat indarkeriaren biktima danean, nik sinatu egiten dodaz etxebizitzarako berehalako sarbidea, eta zuzenean Eusko Jaurlaritzara doa. Eta holakoak eten barik sinatzen dodaz, gure zerbitzuek eskatzen deuskuezan bakotxean. Beraz, arreta emoten jake.

Beraz, ez daigun lokatzik egin ez dagoan lekuan, eten barik hobetzen gabizalako, zerbitzu horreek emakumeok merezi dabena euki daien. Mila esker, eta gura dozunean azalduko deustut.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Laespada. Como el segundo punto del orden del día ha sido retirado, pasamos al tercero.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2023/0000055](#))

**Autor:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Asunto:** El estudio informativo de la Línea 5 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2023/0000055](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0004137](#))

3.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2023/0000055SE](#))

**Egilea:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Gaia:** Bilboko Metropoliko Trenbidearen 5. linearen informazio-azterlana

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000055SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/18/0004137](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo que ha presentado la moción. Por tanto, tiene la palabra el señora Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias señora presidenta. Buenos días. En primer lugar, y antes de comenzar la cita, quiero saludar a los amigos que vienen de Usansolo, bienvenidos Olatz y Joseba.

El 24 de noviembre de 2022 se publica en el BOPV la RESOLUCIÓN de 7 de noviembre de 2022, de la Directora de Infraestructuras del Transporte. En dicha Resolución se somete a información pública el Estudio Informativo de la Línea 5 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, de forma que en el plazo de treinta días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la última publicación de la presente Resolución, corporaciones, asociaciones y particulares puedan formular alegaciones sobre el contenido de dicha actuación, sobre las circunstancias que justifiquen la declaración de interés general y sobre la concepción global del trazado.

Posteriormente, el 4 de enero de 2023, y a petición de EH Bildu, en la otra RESOLUCIÓN de la Directora de Infraestructuras del Transporte, se amplió el plazo de información pública del Estudio Informativo de la Línea 5 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao hasta el 31 de enero de 2023. Hasta la semana siguiente.

La documentación que se publica para el análisis del proyecto y la presentación de alegaciones corresponde al tramo de conexión de la línea 5 con la línea general del Hospital, municipio de Usansolo y Euskotren.

Se han presentado dos alternativas para este tramo, y en ambas se recoge una única estación junto al Hospital, eliminando la actual, situada en Usansolo, y muy lejos del centro del municipio.

Y, a su vez, se crea el servicio de lanzadera de autobús como indemnización por la pérdida de la estación.

Este es el proyecto que ha publicado el departamento del consejero Arriola y con el que los vecinos de Usansolo no están muy de acuerdo. No aceptan, lógicamente, quedarse sin estación en el centro de su municipio, pérdida de calidad de transporte, pérdida de accesibilidad...

Eta hori da gaur BFARI egiten deusagun galderetako bat, sailtako edozeini, eta, batez be, zuri, Rementeria jauna. Ze zu Arriola eta Azpiazu sailburuakaz batera agertu zinan proiektu honen aurkezpenean. Eta galdera litzateke:

Ados zagoz Arriola sailburuaren proiektu horregaz, Usansolo geltokirik barik ixten dauena herrigunean?

Izan be, zuk eta biok, Rementeria jauna, eztabaidatu izan dogu trazadu barriaren egokitasunari buruz. Buelta, eta atzera-aurrea askoren ondoren, zuok onartu dozue L5aren hasierako proposamena, zaku-hondo baten amaitzen zana, L3aren luzapen bihurtzea, eta Euskotrenen Linea Nagusiagaz bat egitea Usansolo zeharkatu ostean Bediara heldu aurretik. Izan be, horixe izan zan EH Bilduk 2018an aurkeztu eban proposamena, eta zuek apurka-apurka onartu dozue.

Baina gure proposamenean, EH Bilduren proposamenean, Usansoloko geltokirako beste kokaleku bat jasoten genduan, eta hori ahaztu egin jatzue, Ibaizabal ibaiaren beste aldean. Horri esker, Ospitaleari eta Usansoloko udalerritari zerbitzua emon ahal jaken, sarbide bikotxa jarrita Ospitaleko biribilgunean eta beste bat Unkina Plazan.

Asko berba egin dogu egunotan usansolotarrakaz, eta asko eskertu deuskue alegazinoak aurkezteko epea luzatzea eskatu izana, proiektu nahiko konplejua dalako, dokumentazino askoduna, eta herritarrei azaldu behar izan jake. Gai hori, bide batez, erakundeentzat kezagarria izan beharko litzatekela uste dot: inplikautako udalerrietara hurreratzea eta proiektua azaltzea, danon artean proiektua hobetzeko eta etorkizuneko erabiltzaileen benetako beharretara egokitzeke.

Eta idea bi adierazo deuskuez nagusiki:

1.- Usansolok eta bertako biztanleek ezin dabe garraio-zerbitzuan kalidaderik galdu, ezin da gaur egungo geltokia per se desagertu, eta barria egingo bada, itxura guztien arabera, uri-eremuan egon behar dau, gitxienez, gaur egungoaren distantzia berean, erdigunetik.

2.- Ez dabe onartuko, eta esaten dodanean ez dabela onartuko esan gura da ez dabela onartuko ospitaleraino autobusez joateko zerbitzu bat, eta argi eta garbi esan deuskue. Zer beharizan dago lardaskeria hori egiteko 300 milioi euroko kostua daukan metroaren linea barria diseinetan gabilzanean?

Pentsetan dot jakitun zarela, Rementeria jauna, eta Aldundiaren osotasunean, pentsetan dot badakizuela sail guztiak, Arriola jaunaren PSEk copy & paste bat egin dauela 2010eko eraikuntza-proiektuan sartuta egoan Usansoloko ospitaleko geltokian. Geltoki horren eta hiru sarbideen proiektuaren koma bat be ez dabe aldatu. Baina ahaztu egin jake 2010eko proiektuan ETSren oingo geltokiaren azpian lurperatutako beste geltoki bat sartzen zala, eta proiektu barrian desagertu egin dala.

Ondorioa:

Usansolok ez dau hobera egiten, Usansolok okerrera egiten dau.

Zuek proponiduten dozue etorkizunean Usansolok gaur egun daukana baino garraio txarragoa izatea, eta hori, lehen esan dodan moduan, Metroaren linea barrian 300 milioi euro baino gehiagoko inbersinoa egin ondoren.

Gure ustez, hori ez da posible, eta Rementeria jauna, zuk, Ahaldun Nagusi zarenez, ez zeunke onartu behar. Foru Aldundiak ezin dau onartu Usansolok geltokia galtzea eta gaur egungoa baino garraio-kalidade txarragoa izatea. Uste dogu zuk eta Aldundiak bizkaitar guztion eskubideak defendidu behar dozuezala, eta ezin dozu ahaztu Usansolon sortuko dan arazoa. Eta, beraz, arazoa sortu baino lehen konponbidea ipinteko eskatzen deutsugu, eta konpontzea gatxagoa izan baino lehen.

Badakigu Usansoloko herritarrak alegazino asko aurkezten dabilzala, alderdi politikoak, gizarte-eragileak eta baita norbanakoak be.

Eta uste dot jakitun egongo zarala aurkeztutakoetako batzukaz. Baina, esan dodan moduan, aurkezpen-fasea datorren martitzenera arte luzatuko da. Batzuk zure alderdi politikoak, EAJk, aurkeztu ditu.

Irakurri egingo dodaz.

Eskatzen dogu:

1. Metroaren 5. linea barria ezartzeak eta Euskotrenen sareagaz lotura barria egiteak Usansolok gaur egun geltokiari esker daukan zerbitzua ez okertzea. Hau da,

antzeko zerbitzua bermatuko da geltokirainoko denporei, distantziei, segurtasunari eta mobikortasunari jagokenez.

2. Usansolok lurpeko sarbidea daukan geltoki bat izatea urigunearen barruan eta metroaren maiztasunagaz.

3. Halakorik ezean, eta beti be, ospitaleko geltoki barrirako edo Usansoloko geltoki barrirako lurpeko sarbide bat egotea, urigunearen barruan (Ibaizabal ibaiaren hegoaldean, ospitalearen arabera) eta ahalik eta erdiren.

Lehen esan dodanaren antzekoa da. Erosi egiten deusudaz, eta ordezkariak daukazun foroetan alegazio horreek defendidutako konpromisoa hartzen badozu, adibidez, Bizkaiko garraio-partzuergoan, edo Arriola jaunagaz egiten dozuzan jarraipen-batzordeetan, badakizu bide horretan bat egingo dogula eta babestu egingo zaitugula.

EH Bilduk aurkeztutakoak irakurriko deusudaz, norabide berean doazela ikusi daizuen, hain desbardinak ez dirala ikusi daizuen:

1.- Usansolon dagoan tren-geltokia kentzea barriz aztertu dedila eskatzea. Bilboko hiri trenbidearen 5. Lineari buruzko informazio-azterlanean jasotako aukeretako edozeinek Usansoloko udalerrian geltoki bat euki beharko dau.

2.- 1. alternatibea aukeratu ezker, esan deusut bi egozala: Ospitaleko geltokia hegoalderantz mobidutea, eta Ibaizabal ibaia igaro be bai beharbada, Usansoloko udalerriko gunen nagusian sarbide bat bermatzeko.

3.- 2. alternatibea aukeratu ezker, geltokia oingo kokalekuan lurperatzea proponiduten da, 2007an lizitatu zan eta 2010ean aurkeztu zan Galdakaorako sarbideari buruzko Informazio Azterlanean jasota egoan lez.

4.- Autobus baten bidez zerbitzu alternatiboa emotea ez onartzea, uste dalako ezin dala garraio publikoko sistema irisgarritzat hartu, kalidadezkoa eta Usansoloko udalerraren beharretara egokitua, Bilboko Hiri Trenbidearen 5. linearen tamainako proiektu baten barruan.

Por lo tanto, si los vecinos, los agentes sociales y los partidos políticos coincidimos en que el proyecto no es adecuado y necesita mejoras profundas, creo que las instituciones también deberían avanzar en la misma dirección.

Y como decía al principio, a la Diputación le corresponde, ante el resto de instituciones, defender las propuestas y los derechos de los vizcaínos.

Y en este caso hablamos de los derechos de Usansolo.

Por todo ello, hacemos la siguiente consulta a la Diputación Foral de Bizkaia:

- En general, ¿qué opinión le merece el proyecto presentado por la Diputación? ¿positivo, negativo, a mejorar?

- ¿La Diputación está de acuerdo con que Usansolo no tenga paradas en el centro del municipio? La propuesta de hoy dice eso, ¿están de acuerdo?

- Dado que la autorización para la prestación del servicio de autobús es de competencia foral, ¿considera la Diputación que un bus-lanzadera es una opción adecuada? ¿impulsará la Diputación esta opción?

- ¿Presentará la Diputación alguna alegación al estudio informativo? ¿o utilizará alternativas de otro tipo para mejorar este estudio? ¿Cuáles?

- Y por eso esta última pregunta. ¿Cree la Diputación que es necesario mejorar el proyecto presentado por el Gobierno de Vitoria?

Quedamos a la espera de su respuesta. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Méndez Urigoitia. Le responde en nombre de la Diputación el señor Gómez Viar. Tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Gracias. Mahaiburu andrea, batzarkideak, buenos días.

Lehenengo aldia da galdera bati erantzutera urteten nazena, inok aitamenik egin barik. Ez dakit, akaso atzera doan lurraren nukleoaren gaiagaitik izango da. Lehenengo eta behin, gugaz dagozan Usansoloko bizilagunak agurtu, eta esan, planteau deustazuezan galderei, kasu honetan Méndez jaunarenei, erantzuten ahaleginduko nazela.

Metroaren 5. lineak trazadura luzea eta zabala dauka, batez be denpora aldetik, orain dala ia 13 urte egin zalako Bilboko metropoli-trenbidearen 5. lineari buruzko informazio-azterlana. Ona dala emoten dau, CTBren eta Eusko Jaurlaritzaren artean egin zan. Patxi López lehendakariaren Eusko Jaurlaritza. Eta horretatik ia 13 urte joan dira, hau da, ikusten da azterlan hau non hasi zan, eta orain ze unetan gagozan, Metroaren 5. linearen eraikuntzarako eta finantziiazinorako hitzarmena sinatua, orain dala 3 hilebete eta lau egun. Hori, besterik barik, 5. linea hori nondik datorren azaltzeko. Eta, gero berba egingo dogu, baina linea hori eregiteko eta finantzetako hitzarmen horretan, aukera bi jaso dira. A aukera eta B aukera, danok ezagutzen doguzala uste dot. Orduan, orain, zure interpelazioan egin deustazuzan galderak erantzungo deustudaz.

Zein da Aldundiaren eretxi orokorra aurkeztutako proiektuari buruz?

Esan neikena da aurkeztutako proiektua 2022ko urriaren 21ean sinatu ebela Eusko Jaurlaritzatik Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuak; eta Foru Aldundi honetatik Ahaldun Nagusiak. Metroaren 3. linea amaitu eta 4. eta 5. lineak aztertu ondoren, gaur egun jente-aurrean dago, urtarrilaren 31ra arte, 5. linearen etorkizuneko proiektua. Informazio-azterlan horretan zehaztutako lotuneak Ariz eta Basauri arteko egungo trazadura eta Usansolo eta Bedia arteko muga ixten dau, salgaietarako zerbitzu eksklusiboagaz, adar horretan bidaiari-zerbitzurik emon barik. Zerbitzua kentze horrek esan gura dau Zuatzu, Zaratamo-Galdakao eta Usansoloko geralekuen operatibidadea bertan behera ixten dala. Horren ondorioz, administrazio publiko eskudunek, hau da, hitzarmen hori sinatu dabenean, hau da, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, gaur egun aurkezten dan zerbitzua herritarrek, kasu honetan Usansolok, planteetan daben eskariari ondoen egokitzen jakon mobikortasun-sistemagaz ordezkatzeko betebeharra daukie.

Konpromiso horren mesedetan, eta Usansoloren ordezeko mobikortasunaren konponbidea aitatu barri dodan informazio-azterlanaren esparruan kokatzen danez, dokumentu



horrek planteau beharko dau mobikortasun-konponbidea, onena izango dana Usansoloko biztanleen egungo eta etorkizuneko eskarirako.

Bigarren galdera: ados zagoz Usansolok udalerriaren erdiunean geltokirik ez izateagaz?

Ba, begira, egia esan, nik ez deutsut hori esan behar. Egin daikedana eta egin behar dodana aitamen historiko txiker bat da. Eskariari buruzko lehenengo azterketak 2010. urtean egin ziran, eta azterketa erakutsi deutsut, eta hor Sarratu, Galdakao eta ospitaleko estazinoak behin eta barriro agertu ziran, eta Aperribai, Bengoetxe eta Usansoloko estazinoetarako eskaria, barriz, oso apala izan zan. Lehenengo biak hainbat errazoigaitik: urigintza-garapena, eraikuntza-kostuak % 41 eta % 50 txikerragoak ziran, eta adostasun handia egoan orduan.

Lanean jarraitu zan, eta 2012an idatzitako informazino-azterlanean, 2012ko bagilean amaitu zana, BTBk eta Sailak ondorioztatu eben 5. linea Usansolora zabaltzeak ez ebazala beteten EIB Europako Inbertsio Bankuaren errentagarritasun sozioekonomikoaren parametroak. Beraz, azterlan horren A aukera planifikatzea proponidu zan. Aukera horrek Europar Batasunak gomendatzen dauzan ratioak lortzen dauz bere osotasunean, eta urtean 5,5 milioi bidaiari izatea ahalbidetzen dau, Sarratu eta Galdakao artean dagoan biztanleriaren % 85i zerbitzua emonaz. Hau da, 5. lineak 5 eta 10 minutu bitarteko zerbitzua emongo leuskie 32.000 biztanle ingururi eta 7.200 langileri baino gehiagori.

Informazino-azterlana guztiz bat dator azpiegitura horren garapenak izan dauen historiagaz, sinatutako hitzarmenagaz eta auzoaren benetako beharretara eta azterlanak dinoan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuneko erispideetara egokitutako mobikortasuna emoteagaz. Errealidade horrek eta gaur eguneko datuen egiaztapenak adierazoten deuskue egoera horrek bere horretan dirauela, eta, horregaitik, Usansolori mobikortasun-sistema desbardina emon behar jako, baina 5. lineagaz konbinauta.

Hirugarren galdera. Foru eskumeneko autobus-zerbitzua emoteko baimena dala eta, Aldundiak uste dau autobus-loturea aukera egokia dala?

Esan behar deutsut lotura-zerbitzua emoteko baimena udalaren eskumenekoa dala, % 100ean uri-zerbitzua dalako, eta Euskotrenen eta toketan dan udalaren artean zehaztu beharko da. Toki-erakundeek beren uri-autobusen ibilpiderako egiten dabezan beste eskaera batzuetan lez, egiten dan eskaera aztertuko da eta trafikoak bat datozen ikusiko dogu. Arretaz aztertu beharko da, baina, printzipioz, ez dirudi aukera desegokia danik, eta logikoa dirudi, halaber, lotura hori Euskotrenek berak ustiatzea, Metroaren 5. lineak emongo dauzan zerbitzu-denporak nahitaez koordinetako eta informatako.

Eta egiten deustazun azkenengo galderea, ez, azkenaurrekoa, zera da: Aldundiak alegazinatorik aurkeztuko deutso informazino-azterlanari?

Horri buruz, esan behar deutsut buru nazen Garraio eta Mobikortasun Iraunkorreko Saitetik ez dogula horren ganeko alegazinatorik aurkeztuko, baina, guk bezala, beste foru sail batzuk be badagozala, eta pentsetan dot aztertu egingo dabela, azterlan hori aztertzen dabilzala eta, zuk ondo esan dozunez, azpimarratu egiten dot, hil honen 31ra arteko epea daukiela edozein alegazino egiteko.

Eta azkenengo puntua. Aldundiak uste dau beharrezkoa dala Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proiektua hobetzea?

Nigaz bat etorriko zara, proiektua gauzatzeko hitzarmena sinatu dabena Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dirala, eta eurak dirala horretan lan egin dabena,

eta baita horri buruzko informazio zehatza daukienak be. Oso argi itxi gura dot nik zuzentzen dodan Sailak ez dituala azpiegiturak eregiten eta ez dituala bere eskumenen artean Bizkaiko Lurralde Historikoko trenbideko garraioari buruzkoak. Izan be, zuk ondo dakizunez, eta nik be, eta hemen gagozan guztiok, BGP Bizkaiko Garraio Partzuergoa da horren arduraduna.

Esan deutsudan lez, datorren astean, urtarrilaren 31n, amaituko da informazio-azterlanari alegazioak aurkezteko epea. Une horretatik aurrera, aurkeztutako alegazioak aztertuko dira, eta ziur nago, arlo eskudunak proiektua hobetu behar dala ikusten badau, zuzendu eta hobetu egingo dauela.

Galdetutakoari behar bezala erantzun izana espero dot, eta zure oharren zain geratzen naz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Gómez Viar. En respuesta, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo señora presidenta. Gómez Viar jauna, ondo erantzun dozu, baina nire gusturako laburregi.

Si bien es cierto que en esta interpelación presentada por mí lo hice de forma genérica a la Diputación Foral de Bizkaia, también es cierto que en todos los debates mantenidos hasta ahora en torno al Metro, en las mociones, señor Rementería, usted ha sido el interlocutor. Y por eso, aunque las preguntas están planteadas en general, en la pregunta de hoy yo tenía todo orientado a usted.

Baina, Rementería jauna, gaur, ia legealdi osoa behar izan dot, baina gaur oso ondo ulertu dot trenarena, zapatilarena eta bizikletarena. Trena ez da zure kompetentzia; zapatila emotea da gaur Gómez Viar jaunagaz egin dozuna, ona jausi jako; eta bizikletea, zuk gaur egin dozuna be bada, liderrarena egin dozu. Etapa erraza datorrenean, nabarmendu egiten zara, orain, etapa gatxa datorrenean, morroiak tiratu daiala, zu gurpilaren atzean, eta holan haizea kendu deitzuela, primeran.

Lau urte kostau jat, baina behintzat argi samar geratu jat. Barriro dinot, hau da, Euskotrenen oraingo geltokia Udalen erdigunetik 300 bat metrora dago, eta arteria nagusia hartzen dogu. Horreri esker, Usansoloko bizilagunek garraio zerbitzu hurrekoa, irisgarria eta erosoak daukie. Kezkatu egin nau Gómez Viar jaunak agirian itxi izanak ez dagoala errentagarritasun sozialik, ez dagoala eskari nahikorik. Hori da aurreko proiektua da, ezta? Hori da zuk Patxi López buruz esan dozun proiektua, zuek eta Euzko Alderdi Jeltzaleak geltoki haretan zaku-hondo bat planteetan zenduenean. Baina hori aldatu egin zan, eta linea orokorragaz lotzea planteau zan hain zuzen be, horretarako, errentagarritasun soziala Usansoloko egoiliarrentzat bakarrik izan ez daiten, errentagarritasun soziala eskualde osoarentzat izan daiten, eta konexino horren onura izan daian Hego Uribek, Durangaldeak eta Arratiak, eta linea lotzen jarraitu ahal dogu. Beraz, justifikazio hori oso arriskutsua iruditzen jat, ze zuek tirita dozuelako zauria baino lehen, Usansolo geltokirik barik geratuko dala justifiketan zabizielako. Izan be, aho barria, zuek Labea auzoan planteetan dozuena, ia kilometro batera dago, eta ibili beharreko puntu arriskutsuztat jo daitekeen gune batetik. Eta gogorarazoten deusut metro-zerbitzu batez gabilzala berbetan, metro-zerbitzu baten integratua dagoan guztia, hemendik aurrera gaueko zerbitzuak eukiko leukezalako zapaturu, jai-bezperetan eta udan, asteburu osoan zehar.

Orduan, emoten dau zuek sinatu dozuela, holan esan dozu, proiektu bat sinatu dogu. Orduan, uste dot ontzat emoten dozuela, ez dozuela hobekuntzarik behar, besteek zer esaten daben ikusi arte itxarongo dozuela, Ahalduen Nagusi jaunak proiektu bat sinatu

dauela, zuek aztertu dozuela eta egokia dala uste dozuela. Eta horrek kezkatu egiten nau, uste dodalako proiektu horrek hobetzeko aukera handia daukala, edo konpondu beharreko burubakokeriak dituala eta hau bat dala, Sarratuko konexinoa be izan daitekeen moduan, Basaurin beste burubakokeria bat. EH Bildun ahalegintzen gabilz proposamenak egiten, auzotarrak ahalegintzen dabilz hori hobetzeko proposamenak egiten, eta nik proaktibidade falta ikusten dot Aldunditik, zure Saitetik edo Ahaldun Nagusiarengandik.

Eta horregaitik galdetu dot, zuek proposamenik egin dozue zagozien foroetakoren baten? Ze beti aitutzen deuskuzu zeintzuk diran BGPren funtzinoak eta nork daukan Bizkaiko garraioaren ahalmena. Baina nik beti erantzuten deusuet gauza beragaz, Gómez Viar jauna, Foru Aldundiaren ordezkaria zara foro horretan. Eta Rementeria jauna presidentea da, PRESIDENTEA, eta horri buruz ezin dauela ezer egin esaten zabizie? Ez dot sinisten, ez dot sinisten, zuek foro horretan zagoze, eta barriro dinot, Bizkaiaren eta bertako herrien eskubideak defendidu behar dozuez, eta hau da horreetako bat.

Eta autobus-loturaren ordezeko zerbitzuari jagokonez, esan deustazu ibilbidea udalerraren barruan dagoala. Behin desanexioa eginda ikusi beharko da, eta zelan geratzen dan, zuek adituak zarielako lanzaderakaz lotzen. Nik galdetu deusut ea alternatiba erreala dala pentsetan jarraitzen dozun ala ez, positiboa dan ala ez, hobetu daitekeen ala ez.

Usansoloko bizilagunak esan deuskuzan berbak errepikatzen eta hartzen dodaz. Euren eretxiz, proiektu horregaz tren-geltokia galtzen dabe, gaur egun emoten dan zerbitzuaren kalidadea galtzen dabe, eta Bilboko Hiri Trenbidearen 5. linearen moduko obrak, 300 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuagaz, kontuan hartu behar dau ia 5.000 biztanleko udalerria. Ezin da alde batera itxi Hego Uribeko biztanle-gune garrantzitsu hori, Usansolo., eta uste dot Aldundiak neurriak jarri behar dituala burubakokeria hori ez gertatzeko. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Méndez Urigoitia. Le responde en nombre de la Diputación el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Egun on barriro.

Méndez jauna, esan behar deusut nik estudioak dinoana esaten nabilela. Nik uste dot hemen askotan berba egin dogula; hau da, nik ez dot ezer sinatu azterlan horretan, azterketa hori egin dauenak egin dau, barriro dinotsut, nork egin dauen Eusko Jaurlaritzaren aldetik, nork sinatu dauen. Metroaren 5. linea eregiteko eta finantzietako sinatu dan Hitzarmenari begiratzen badeutsazu, orain dala 3 hilebete zuk esan dozun moduan, nik zuzentzen dodan Garraio Sailari jagokonez, 3 aldiz aitutzen dau jarraipen-batzorde bat, eta hor bialduko deuskuez fakturak, ziurtagiriak eta beste ezer gitxi gehiago, Ogasuneko zuzendariak eta Garraioetako zuzendariak ordezkutzen dabela Aldundia batzorde horretan. Nik azterlanean irakurri dodana, zuk esaten deustazunari buruz, nik ez dot azterketa horretan sartu behar, nik be ez dodalako parte hartu eta ez dodalako egin. Ganera geltokitik distantzia uste dot 500 metro dirala. Eta gero, esan deusudana, askotan, hemen, galdetzen deustazun baxotxean, hau da, uste dot danok ulertzen dogula eta argi geratzen dala Garraio Sailak, Bizkaiko trenbide-gaietan, ez daukala zer esanik ez zer eginik, ez daukalako eskumena. Lurralde Historikoan gai horreetan trenbidearen eskumena BGPrena dalako, gustau edo ez gustau. Zuri gustau ahal jatzu, niri gustau ahal jat, edo ez jaku gustetan.

Eta, gainera, barriro esango deusut, beste gauza bat be esango deusut. Ni Aldundiaren ordezkaria naz BGPn, 25 kideko ordezkari bat, eta inoiz bueltau naz, hemen esan deusut eta barriro esango dot, hori etorkizunean beharbada ikutu egin beharko litzatekela, ez daukalako zentzu handirik BGPn Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean % 50

finantzatzeak, eta Aldundiak 25 kideko ordezkari bat eukiteak. Eta zuk esango deustazu ni ordezkaria nazela eta nik esango deustut askoren arteko bat nazela. Eta barrero planteauko deustut, nik egin dodana 5. linea horren aitamen historikoa izan da lehenengo azterlanagaz martxan jarri zanetik. Eta barrero esango deustut hilaren 31ra arte, hilaren 31ra arte, denporea dagoala alegazinoak egiteko, eta idazketa horretan esku hartu daben bi alderdiek, aldeetakoren batek uste badau hobetu daitekeela planteau daitekeen edozein konponbide teknikogaz, uste dot egingo dabela.

Eta ez daukat besterik esateko kontu horri buruz. Ezin dogu hemen txikleaz luzatzen jarraitu, zuk gupilagaz egin deuskuzun metaforeagaz. Baina nik uste dot nahiko argi dagoala zer posizino daukien guztiek egoera honetan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Gómez Viar. Cuarto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2023/0000059](#))

**Autor:** Fernández Medrano, Héctor (EB)

**Asunto:** La legitimidad del proyecto de ampliación del Guggenheim en Urdaibai.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2023/0000059](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0004141](#))

4.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2023/0000059SE](#))

**Egilea:** Fernández Medrano, Héctor (EB)

**Gaia:** Urdaibain Guggenheim handitzeko proiektuaren zilegitasuna

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000059SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/18/0004141](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Tiene la palabra la señora Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Egun on gurtioi. Gracias.

Ia urte bi dira Ahaldun Nagusiari Guggenheim Museoa Urdaibain handitzeko proiektuari buruz itaun bat planteau neutsanetik. Erantzun gisa, itzelezko erretolikea hartu neban Europako funtsek diru aldetik hain aspalditik tiraderan egoan proiektu hau aurrera eroateko euker aukerea dala-ta.

Bere garaian defendatu neban kontzeptu-akatsa zala funts posibleotatik kulturara bideratutako guztiak inolako krisitik berreskuratu beharrik ez daukan ekimen pribadu batera bideratu gura izatea. Gogoratu daigun funtson izena Europako Berreskuratze Funtsak eta abar zirala. Eta ondoriozko mozinoan itaun hori egin ondoren, eskatu neban lankidetzaz publiko-pribatuaren planteamendu horretan behin betiko lidergoa izatea eremu publikoak, eta, zehatzago esanda, Aldundiak, proiektuaren garapenean. Eta beste alde batetik, eskatu neban ziurtatzea bai Euskal Herriko Unibersidadearen presentzia proiektuaren alderdi kulturaletan, bai eskualdeko udalerriek proiektuaren fiskalizazinoan edo kontrolean daukien kontrol-gaitasuna. Bertaratutako batzarkide-talde guztiek proposamen horren kontra bozkatu eben.

Orduan, urte bi geroago, egoerea ez da bardina, jakina, eta Foru Gobernutik pausu asko emon dira Guggenheim Fundazioaren ames hori gauzatzeko. Urteotan zehar erakutsi da edo probau da Aldundiak fundazino horregaz dauen konpromisoa itsua, eta hori hainbat mailatan egin da, eta maila horreei buruz egituratu dot, zeozelan, gaur esku artean daukadan interpelazino hau. Izan be, honezkero egiaztetan hasita gagoz Guggenheim handitze horren inplikazinoak nahiko garrantzitsuak dirala, Bizkaiak handitze horregaz puntu horretarainoko konpromisoa hartu gura ete dauen galdetzeko bestekoak. Orduan, kezka horreek nire interpelazinoaren puntu ezbardinetara eroaten nabe, honako honeetara, alegia. Aldundiaren konfiantza itsu hori ulertzen ahalegintzeko 5 alderdi; 5 zalantza, justifikauta dagoan baloretako.

Orduan, lehenengo alderdia, zelan ez, diruaren kontua da. Kultura Sailak Guggenheim Fundazioari urtero bere jardueria aurrera eramateko ordaintzen deutsan milioitako kultur hamarretetik harago, zein unetan gagoz Guggenheim Urdaibain zabaltzeko gai ekonomikoari jagokonez? Badirudi Europako funtsak ez litzatekezala nahikoa. Egia da diru horren bidea nekez ikusi daitekeela, maila instituzional desbardinetatik pasetan dalako, baina horregaitik galdetzen dot, ze momentutan gagoz? Orain dala urte bi, gure erantzuna edo planteamentua zan handitze horrek, hasikeran behintzat, 127 milioi euroko kostua izango ebalda, eta horreetatik 80 funts horreetatik ekarri gura zirala. Gaur egun daukaguna 40 milioi da, Urdaibain Guggenheim handitzeko lanak egiteko Azpiegiturak enpresarako aurrekontutik bereizita. Dagoeneko 40 milioi dagoz horretarako. 40 milioi, beste egoera baten esan neban lez, oindino eraikuntza-proiekturik ez daukan handitze baterako, funtsean proiektua zer dan azaltzen dauen azaleko erretorika baten oinarrituta dagoena; eta, bestetik, Guggenheim Fundazioaren asmoen adierazpen baten oinarrituta dagoena.

Bigarren puntua. Zer egin dau Bizkaiko Foru Aldundiak, Guggenheimerako 40 milioi horreek aurrekontuan bereizteaz aparte ekologiararen arloan? Hori Iraunkortasun Batzordean erabili genduan. Egin dauena, eta ez Iraunkortasun Sailak, Murueta ontziolen eremuko babes-zortasuna murrizteko eskatu dau kostaren arduradunei. Ez naz horretan sartuko, izan be, Iraunkortasun Batzordean eztabaidatu genduan, baina daukagun biosfera-erreserba bakarraren eremurik babestuena, hegaztiak babesteko eremu berezia, kontserbazino bereziko eremua, hau da, Natura 2000 Sareari buruzkoa, eta, beste alde batetik, Ramsarreko Nazinoarteko Hitzarmenari atxikitako hezegune bat da, bereziki babestua. Hor, Aldundiak eskatzen dau itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun hori legezko gitxienekeora murrizteko, Iraunkortasun Sailaren apatiagaz. Izan be, eskabidearen egilea ez dan ez izan, gaiari buruzko eretxia bertan behera ixten dau, ez daki, ez dau erantzuten. Eskumenak argi dagoz, esan dodan moduan, biodibersidadearen defentsea Sail honen zeregina izan behar zan, handitzea eskatzea, ez babes-zortasuna eta ez mugatzea. Baina eskumenak argi egozan, esan dodanez, biodibersidadearen babesa, eta, hemen, Aldundiak babes-zortasuna murriztea eskatu dau, eta Aldundiak bere egin dauen jarduera frankistaren emakidari buruz berba egin beharko litzateke. Badirudi Murueta ontziolen jaube edo jaube potentzialak dirala. Izan be, gure ustez, Kostaldeari buruzko Legearen arabera, argi dago jarduera amaitzen danean hori desmuntatu eta espazioa deskontaminatu egin beharko litzatekela, baina beharbada hori beste era bateko eztabaidea izango da.

Horixe zan bigarren galderea, gaiei edo inplikazino ekologikoei buruzko balorazinoa, Iraunkortasun Sailak bape baliorik emon barik pasau ebalako.

Hirugarrena, arazo kulturala. Ikusi dogunez, eraikuntza-proiektuaren oinarriak New Yorkeko arkitektura-estudio bati eskatu eta laster heltzeko egongo dira, baina badirudi oraindino ez daukaguzala, dakigunez, eta Lekerikabeaskoa ahaldunak esan eustan kontu horreetan gurdia idien aurrean jarten nenbilala. Baina egia da gurdia idien aurrean ipinten ez badot, beharbada esnatu egingo nazela eta Guggenheim Ortuella handitzea daukadala. Orduan, edo oposizino moduan, uste dot egokiena egiten nabilela.

Alderdi kulturala. Guggenheim benetan handitzeko proiekturako lehiaketaren oinarriak ez daukaguz, baina, esan dodanez, honezkeror lortu dau lurralde-plan partzialaren aldatzea, 40 milioi euro aurrekontutik apartetea, Urdaibaiko Biosferaren erreserbako eremu babestuena aldatzea, eta hori da, nire ustez, elementurik indartsuena, Aldundiak eta Trantsizino Ekologikoko Ministerioak batera egindako adierazpena, proiektu hau aurrera eramateko asmoen adierazpena dagoala. Niretzat, uste dot Trantsizino Ekologikoko Ministerioak ez ebalatu zehurtasun handirik izan gai horretan, baina hor dago. Azaleko ezaugarriak baino ezagutzen ez doguzan proiektu baterako, izugarritzko ahalegina egin da eta Aldundiak hori gauzatzeko larregizko borondatea erakutsi dau.

Kulturaz berba egitea, orduan, gurdia idien aurrean jartzea litzateke? Ez naz ni izango autoktoniatik hausnarketa bat egingo dauena, baina beharrezkoa da proiektuaren oinarrien idazketa New Yorkera eramatea ala proiektu honi jagokonez alderdi kulturean etorriko denaren beste zeinu bat da? Guggenheim Fundazioak dagoeneko bahituta ete daukaz kultur arloko erabagiak?

Galdera horreen ganeko gogoetea egin beharko leuke Aldundiak. Azkenengo alderdi biak galdera berean batu daitezke.

Alde batetik, Guggenheim handitzearen onurei buruzko konfiantza itsu hori, oro har eskualdearentzat, justifikauta ete dago azterlanen baten, nolabaiteko zorrotasunez egindako zundaketaren baten, edo nolabaiteko oinarriren bategaz, nasaitasuna emoteko eta proiektu honetan konfiantza izateko? Aldundiaren gogo bizia justifikauta dago? Zein zentzuntan, eta hau izango litzateke azkenengo galdera, Guggenheim handitzea proiektu estrategikoa dala esan daiteke, ez bakarrik Busturialdearentzat, baita Bizkaia osoarentzat be? Horixe behar dau eskualdeak, horixe behar dau Bizkaiak? Nori egin jako konsultea?

Hain zuzen be, nire galdera, interpelazino honeri guztiari izenburua emoten deusana, hau da: zein da proiektu honen zilegitasuna eta zeintzuk dira aurreratzeko moduko ondorioak?

Nahikoa dala uste dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Fernández Medrano. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, toma la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Gracias señora presidenta, y buenos días a todos y todas, junteros y junteras, miembros de la mesa.

El señor Héctor Fernández Medrano pregunta en esta última intervención cuál es el motivo, o qué legitimidad tenemos para sacarlo adelante. Y yo quería empezar por ahí, considerando ese punto.

Eta egia da legitimazioaz berba egiten dogunean gauza askori buruz berba egin geinkela. Zuek badakizue laster hauteskundeak izango doguzala, eta bertan zuetako batzuk aurkeztuko zariela. Batzar Nagusi honeek be aurreko beste hauteskunde batzuen ondorio dira. Eta hor jarriko dot arreta legitimidadeaz berba egiteko, legitimidade horretaz berba egiteko agertokia dala uste dodalako.

Zuek badakizue Batzar Nagusiotan Bizkaiko 255.754 lagunek emon eutsiela botoa EAJ-PNVri, botoa emotea erabagi ebenen %44,3k. 97.653 personak emon eutsien

botoa Euskadiko Alderdi Sozialistari, hau da, botoa emotea erabagi ebenen %16,46k. %60,76 guztira.

Egia da zilegitasuna personen konfiantzak emoten dauela. Lehenengo eta behin, personen konfiantza, kasu honetan gure Lurraldekoena, behin eta berrero bozkatuta konfiantza hori emon deuskuena. Hori da legitimazioaren zati bat.

Baina Guggenheim proiektuaren legitimidadeaz berba egiten jarraituko dot, Guggenheim Museoak sortu dauzan gauza on guztiez, New Yorkek bahitua ez daukana, ez, Fundazioa hemengo da. Badakizu nor dan burua, nortzuk osotzen daben, fundazio hori hemen dago. Bizkaiari ekarri deutsan guztia, imajinetan dozue, imajinetan dozu Bilbo Guggenheim barik, Euskadi Guggenheim barik, zein izango litzateke prezio edo egoera hori, une honetan museoa ez eukitea? Guggenheim ez izatearen kostua, egin galdera. Badakizue zergaitik daukagun Guggenheim? Izan be, bere garaian, eta 25 urte bete barri doguz, bere garaian agintari ausartak egon ziran, eta oso zailak ziran erabagiak hartu ebezelako. Danok esan dogu egoera haretan gatxa izan zala erabagi hori hartzea, eta, logikoki, hemen be esan gura dot, instituzionalki Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hartu ebelako erabagia.

Zuok, egia da, une haretan ez zengozen alderdi moduan, halan da, baina zalantza asko daukadaz, alderdi moduan egon ezkerok, proiektu horri baietz esatea adostuko zenduenik. Zalantza asko, eta hori erakusten deustazu gaur be hemen, zure esku-hartzeagaz.

Ba hori da historia, hori da legitimidadea. Baina, niretzat, berba betetea be bada legitimidadea, hori be legitimidadea da. Bizkaiko Foru Aldundi honek, Ahaldun Nagusi honek, bai, konpromisoa hartu dau proiektuagaz. Eta, badakizue zergaitik? Guztiaren atzean Lurraldeagazko konpromisoa dagoalako, baita eskualde honegazkoa be, Busturialdeagazko konpromisoa, kasu honetan, Urdaibai, Gernika, Muruetagazko konpromisoa. Bizkaian bizi diran baina hemen be bizi garen persona guztientzat etorkizun hobea lortzeko konpromisoa hartuta. Eta jarduera ekonomikoa sortzeko konpromisoa hartuta, baina alderdi garrantzitsuak ahaztu barik, hau da, jasangarritasuna, ingurumena eta alderdi kulturala. Ze hori guztia da Gernikako Guggenheim, Guggenheim Urdaibai proiektua. Eta horregaitik, hain zuzen be, eta lehen esan deutsudan herriaren konfiantzeagaz, horregaitik egiten doguz zuk dinozuzan urrats horreek guztiak. Eta azkar emoten gabiliz, edo abiadura egokian, baina bidezkoa dan lez. Beti arauagaz, geure buruari emon deutsagun araudia betez.

Eta hori esanda, eta zuri entzunda, zein da arazoa?, zein da arazoa?, esaten doguna betetea?, zuk egozten deuskuzun eta alegetan dozun bizkortasun horregaz egitea?, hori egia bihurtzeko behar diran funtsak bilatzea?, CO2 zero isuria daukan eta eremuagaz guztiz iraunkorra dan proiektu bat egitea?, serioa izatea?, ez dakit zein dan ohartarazoten dozun arazoa.

Hara, askotan esan dot, Bizkaia ezin da errentetatik bizi, eta argudio positiboak sortzen jarraitu behar dogu, eta ez naz errepikatzea nekatuko. Eta proiektu honek, jakina, batzen ditu kulturea, jarduera ekonomikoa, eta baita ekologia, ingurumenaren babesa, jasangarritasuna eta, duda barik, hemen bizi diran eta Bizkaian bizi diran personen bizikaldia hobetzen dau, Guggenheim Bilbao Museoak inguru horretarako guztirako, uribururako eta Bizkaia osorako eta Euskadirako egin eban moduan.

Neurrira egindako proiektua da, kultura babesten dau, bereziki sortzaile gazteena, munduan museo tradizionalki diranen edo hatakotzat ezagutzen doguzanen moldeak hausten dauz, artea, paisaia eta ingurumena barritu eta uztartu egiten dauzalako. Oraintsuko historiaren zauriak osatzen ditu, kasurako Daliako industria-hondakinak berreskuratzen ditu; zelan dagoen ikusi behar da, industria-hondakin horreek berreskuratzen dauz. Industria-jarduera astuna berreskuratzen dau, hau da, ontziola uri-lurzorurako, biak uri-lurzorurako, ez ahaztu hori, uri-lurzoru finkatua, biak. CO2 isurketa zero izango dauan proiektu bat bermatzen dau, sarbide jasangarriakaz, oinez, bizikletaz, trenez. Bisitarien gehieneko kopurua inguruari errespetua

izateko, jentetzarik barik, pilaketarik barik, urteko hilebete jakin batzutan bakarrik edegiz. Inork ez deutso errespetu handiagorik ingurune horrerri, Aldundi honek eta Ahaldun Nagusi honek baino. Errespetu bera danok, danok, baina gehiago, ez. Hori seguru.

Horreek dira gidatzen gaituen gakoak. Baina, zuk aitatzen dozuzan eremu zehatzei jagokenez, arlo ekonomikoan, finantziarioa aitatu dozu. Guk kofinantziarioa lantzen jarraitzen dogu, baina ez bakarrik Aldundiarena, baita Eusko Jaurlaritzarena be, baita Estaduko Gobernuarena be. Eta hor be ez dot arazorik ikusten, eta adibide moduan, beti eskatzen jako nonori zeozer egiteko. Guk egiten dogu lehenengo, eta horregaitik 40 milioi euro bideratu doguz Azpiegituretara, zuk dakizunez. Eta sinisgarritasun horren, eta egin dan lan horren ondorioz, Estaduak beste 40 milioi euroko konpromisoa hartu dau Estaduko Aurrekontuetan proiektu horretarako. Eta zuek onartu dozue, Estaduko Aurrekontu Orokorrak.

Eusko Jaurlaritzagaz be berba egiten jarraitzen dogu; izan be, Lehendakariak oin dala gitxi esan eban lez, Eusko Jaurlaritzak sektoreka jagokon zatia osotzeko be esan eban. Eta hori da egiten gabilzan lana, egin behar dogulako, gure betebeharra dalako, lan hori egitea.

Proiektuaren eta ingurunearen iraunkortasuna. Proiektu honek Urdaibai gehiago eta hobeto babesten lagunduko dau, eta daukagun araudiagaz egingo dogu. Jakina, ingurumen-arloko araudi zorrotza, zuk dakizunez, Erreserban. Legeak eskatzen deusku urigintzako eta ingurumeneko figura jakin batzuk izapidetzea, proiektua gauzatzeko, interesa daukien erakundeek eta herritarrek prozesu horretan parte hartu daien. Horretarako legezko mekanismoak daukaguz, erakunde eskudunek be aztertu eta informau daien. Horregaitik gabilz, hain zuzen be, Gernika-Markinako LPParen aldaketa bat izapidetzen. Eta hori da ingurumena elementu nagusizat daukan kontinentea. Aldaketa horren dokumentu nagusia une honetan idazten dabilzan ingurumen-azterketa estrategikoa da, eta azterlan horretan aztertzen, kuantifikatzen eta baloretangabilz proiektuagaz lotuta dagozan ingurumen-alderdi positibo eta ez hain positibo guztiak. Eta ingurumen-hobekuntzak egin gura doguz jarduketa-eremu osoan. Eta adibide batzuk jarriko deusudaz, adibide batzuk aitatzearen: industria-lurzoru bi deskutsatuko doguz, zuk dakizunez, orain degradatuta dagozanak, eta kultura-jarduera bat emongo deutsegu. Uraren eskutik, akuiferoa deskontaminatzen lagunduko dogu Gernika azpian. Eta horregaz esan gura dot ez dala itsasoak kutsatzeko, akuifero hori zati horretan garbituko dogula.

Ontziolan, itsasadarrari bere ibilgu-zabalera eta jatorrizko fluxua itzuliko deusaguz, ontziolako kaiaren zati bat kenduz. Urak hartu leiken padura-eremua nabarmen handitu gura dogu, eta horrerri esker inguru horretan dagozan espezie inbaditzaileak desagerrarazo ahal izango dira. Baina urpean geratu leitekezan lekuetatik kanpo be, bide batez, espezie inbaditzaileak desagerrarazoko doguz, plumiferoak adibidez, handik buelta bat emon ezkerro ugariak dirala ikusten diranak.

Garraibide jasangarriak erabiltea be sustatuko da, lehen aitatu dodan lez, batez be trena, eta bizikleta eta zapatila. Eta neurri horreek guztiak, eta gehiago, ingurumen-azterketa estrategikoan zehaztuko dira, eta ingurumen-organo eskudunak aztertuko dauz.

Beste alderdi batzuk. Kultura aitatu dozu. 2008. urtetik, Guggenheim Fundazioa proiektuaren kultura-alderdaren buru da handitze horretan. Eta Fundazioak asko landu ditu 10 urtez edukiak, programazioa, kudeaketa. Eta hemen, barriro dinot, gu Fundazioaren parte gara, Aldundi hau Guggenheim Fundazioaren parte da, Eusko Jaurlaritzak Guggenheim Fundazioaren parte da. Eta bakotxa berera, alderdi kulturalaren barri daukan organismo bat badaukagu, ba nor Guggenheim Fundazioa baino hobeto alderdi horretarako, handitze hori egiteko.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Diputado General, vaya terminando por favor.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Si, le agradezco, no me he dado cuenta, pero ahora interpreto.

Luego se lo digo ¿vale? Esa parte de cultura y el punto de vista económico. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Diputado General. Toma la palabra en el turno de respuesta el señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora presidenta. Gracias señor Rementeria por las explicaciones.

Gero jarraituko dot geratzen diran azalpenak entzuten. Dana dala aldez aurreko gauza bat, deskontaminazioaz berba egin dogunean, argi geratu ez jatan alderdi bat egon da. Murueta ontziolaren ingurua, Aldundiak deskontaminatuko dau, esan gura dot, guk ordainduko dogu? Galdera hori burura etorri jat, eta mobimentu ekologistari entzun deusat inoiz planteau deusula, ondo egongo litzateke jakitea.

Baina goazen interpelazioaren xedera. Autortzen deusut ikusi izana nire alderdi politikoa ez zala existiduten lehenengo Guggenheim eraiki zanean, baina uste dot larregizkoa dala horren inguruan izango genduan jarrera interpretetea. Izan be, uste dot argi itxi dodala hemen zein dan Batzarretako talde honen jarrera, bai handitzeari jagokonez, bai Guggenheimi jagokonez. Guk beti onartu dogu Guggenheimek ospea ekarri dauela, bai Bilbora bai Bizkaira, oso garrantzitsua, baina beti zalantzan jarri dogu aberastasunaren gaia, eta beti aitutzen doguz lan-gatazkak, edo museo honek ekarri dituan gai guztiak.

Uste dot interesgarria dala egin dozun irakurketa, baina ez gatoz bat baikortasunagaz. Nik uste dot legitimidadearen gaia errazoizkoa dala hemen planteetea. Nik uste dot alderdiaren interpretazioa egiten zabizala hemen, eta ez herrialdearena, benetan dinot. Nire buruari galdetzen deusat, zein da arazoa? Ba arazoa da Guggenheim handitzea ez egoala hauteskundeen programan, hain emoitzia onak ekarri eutsuezan eta aldian-aldian gogoratuten deustazuanak. Nire ustez, inposizinoakaz gobernetako garaitik pasau gara, eta hemen ez da batzokiko jentearentzat bakarrik gobernetan, Bizkaia osorako gobernetan da. Zentzun hori dauka interpelazioak, aurretik argi geratu ez bada be.

Nire ustez, egiten dan analisisa ez da konpentsatua, eta baikorregia izaten jarraitzen dau. Argi geratu jat kontua ez dala gai kulturala, kultura eta industria kulturala nahasten gabilz, eta batez be sustapen ekonomikotik daukan proiektu bat dala. Alderdi kulturala, kasu zehatz honetan, argi itxi deustazu, lidergoa Guggenheim Fundazioarena da, termino kolonialetan gagoz, kulturari jagokonez. Eta erakutsi eitekean zeintzuk diran arte ederren, artisautzaren eta Aldundiarenak bakarrik diran gauza batzuen ganeko eskumenak. Baina, tira, Guggenheim Fundazioak hartuko ditu erabagi egokiak, eta egia da esperientzia daukiela horretan.

Alderdi ekologikoa. Interesgarria iruditzen jat horren bandera egitea; interesgarria iruditzen jat gaur egun proponiduten dan handitzeak alderdi ekologikoak kontuan hartzea, jatorrizko proiektuari beti kritikau jakozalako izan eikiezan ondorio kaltegarriak. Dana dala, ekologian diharduen gizarte zibilak zer esaten deusku? Hedapen horretan nasaitasunak baino alerta gehiago dagozala, eta hori kontuan hartu behar da.

Gauza gehiago, gaiaren alderdi demokratikoa. Nik hemen ikusten dot Guggenheim Fundazioagazko konfiantzea, eta oraindino be justifikau barik dagoala. Badakit, eta zugaz bat nator, Bizkaia ezin dala errentetatik bizi, esan deustazunez, baina badirudi Guggenheim Fundazioa errentetatik bizi izango dala historia osoan.

Hori esanda, niri eta nire taldeari interpelazino hori planteetako ardurea ekarri deustana da Bizkaia eta bere erakundeak ikusle pasibo moduan geratzea gai horren aurrean, funtsak lortzen laguntzen daben arren. Gure ustez, erabagi hori herri-mailan zilegi dala ziurtatzeko adinako inplikazioak dagoz, zehaztutako eremu guztietan. Esan gura dot, parte hartzeagaz hain konprometiduta bagagoz, esan dan moduan, zergaitik ez dogu konsultetan handitze hori instalauko dan eskualdeko interesakaz ezkontzen dan, gitxienez?

Guk uste dogu ondo dagoala esaten dana egitea, baina egingo dan hori horren eragina jasango dabenakaz kontsultau beharko da. Nire ustez, ulertzen da zein dan talde honen egonezina eta, beharbada, zein izango dan interpelazino honetatik etorriko dan proposamena. Edozelan be, arretaz entzungo dodaz esan barik geratu diran gainerako azalpenak. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Fernández Medrano. En el turno de respuesta tiene la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Gracias de nuevo señora presidenta. Antes me he quedado corto y les pido disculpas porque me he alargado, y sí, es así.

Hablábamos del aspecto cultural. Alderdi kulturala. Eta esan deustut zer gitxiago Guggenheim Fundazioa baino. Zuk kolonialismo kulturala ekarri dozu barriro, baina nik esaten deustut Guggenheim Bilbao Fundazioa hemengo fundazioa dala, Aldundia parte dala, Eusko Jaurilaritza parte dala, begira horrek zer dakarren, ezta? Hemengoak gara, zu Guggenheim Fundazioaren parte zara Bizkaiaren zati zaran aldetik, Aldundi honen, Gobernu honen parte zaran aldetik, ez ahaztu.

Baina, tira, jarraipen-lan horrezaz gan, hau ez dala ezer barria esan dot. Hau da, Guggenheimen proiektua handitzearena Guggenheim Fundazioaren plan estrategikoan dago, zeharkako zatia da, orain dala 10 urtetik, edo 10 urtetik gora, 10 urtetik gora. Beraz, ez da gauza barria, proiektu hori eta ikuspegi estrategiko hori ezagutzen dozuz. Kulturaren ikuspegitik, jarraipena dago zentzun horretan. Integrazino-eredu barri baten barruan, ekoizpen artistikoa bateratuko da, baina gaur egun bizi dogun bizitzaren elementu garrantzitsuak diran alderdiak dagoz: alde ekologikoa, paisaiaren alderdia, teknologia, gizarte-konektibitatea, ikerketa, hori guztia kulturaren inguruan, horretaz gabilz berbaz.

Programazino sensiblea be pentsetan dabilz, urtaroko erakusketa-proposamenen bidez egituratua, Museoa be une honetan egiten dabilen lez. Programazino horrek bikaintasun ekologikoaren, paisajistikoaren eta arkitektonikoaren testuingurua islatu eta nabarmenduko dau, paisaiaren eta artelanen arteko alkarrizketa aktiboa, giza jardueraren eta naturaren artekoa, Biosferaren Erreserba dan aldetik. Horixe da erreserba baten eta parke natural baten arteko aldea. Guk, Biosferaren Erreserba izatea onartu zanean, eta ni 1986an hemen bizi nintzan, esan euskuen hori zer zan. Erreserba bat, ingurumenaren alderdia giza jardueragaz, bere jarduera ekonomikoagaz, bere bizitzagaz, bere habitatagaz uztartzen dauena da. Parke naturala ez ostera, uste dot guztiok bereizi beharko geunkela.

Jakina, onura sozialei eta ekonomikoiei buruz berba egiten dogunean, begira, proiektu honek, bere garaian pentsau eta egin zan moduan, logikoki alderdi artistikotik harago doazen helburuak ditu. Eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren sorrerearen zati bati

buruz berba egiten dogu, eta kuantifikatu egin gura neuke, gai horri buruzko datuak badagozalako. Jarduketa horrek eragin zuzena, zeharkakoa eta induzitua dauka, hasierako eraikuntzatik eratorrita. Aitazen gabilzan hasierako zenbaki horreek 87,5 milioi euro inguru dira BPGan, 1.479 lanpostu sortu eta mantendu dira, eta 26,2 milioi euro bildu dira Bizkaiko Ogasunerako tributuetan. Ustiapenetik eta sortu daitekeen jarduera ekonomikotik eratorritako urteko inpaktua, zuzena, zeharkakoa eta induzitua, 39 milioi eurokoa da BPGan, 692 lanpostu eta 10,4 milioi euro batzen dira urtero tributuetan. Eta hemen ez doguz sartzen udalerrri baten inguruan sortu daitekezan jarduera guztiak, hau da, Uribildu honen inguruan, hau da, Gernikaren inguruan. Barrero dinot, lehen aitatu deusudazan alderdi kultural, teknologiko eta ekologikoakaz lotu daitekezan jarduerak.

Guggenheim Gernika, Urdaibai, Murueta proiektua ez da hutserako jauzia, ez da, ez da. Eta barrero dinot, pozten naz gobernu-programan ez egoala esateagaz. Egiteko konpromisoa hartutakoak baino gauza gehiago egiten doguz, eta hori ona da. Gobernuaren erabazten dogun alderdi bien hauteskunde-programaren eta gobernu-programaren ehuneko ehun hori baino harago goaz, eta hori gauza ona da.

Nik azpimarratuko deusut hori museo barritzaile baten alderdiak batzea dala, eskualde honetan hain zuzen be landu beharreko alderdi barrienak, eta, era berean, azpimarratuko deusut eskualdeak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba danez, eskubide osoa daukala, munduko eskubide osoa, museo-jarduerara be izateko, eskubide osoa. Eta zuek ez badozue holan ikusten, behin eta barrero esaten dozuelako ez daukagula legitimidaderik edo eskualde honen ez daukala legitimidaderik, esan eiezue herritarrei, gazteei, eskualde honetako edadekoei. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Diputado General.

A continuación trataremos los puntos 5 y 6 conjuntamente.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000041](#))

**Autor:** Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

**Asunto:** La atención temprana para niños.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2023/0000041](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0004127](#))

5.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000041SE](#))

**Egilea:** Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Haurrentzako arreta goiztiarra.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000041SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/25/0004127](#))

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000046](#))

**Autor:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Asunto:** Atención temprana

**Documento**

**Principal:**

6.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000046SE](#))

**Egilea:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Gaia:** Arreta goiztiarra

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000046SE](#))

[\(R.E.11/E/2023/0000046\)](#)

**Expediente:** [\(11/B/25/0004131\)](#)

**Espedientea:** [\(11/B/25/0004131\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias.

Para empezar el debate, en primer lugar, tiene la palabra la señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea.

Aurkeztu dogun galderaren testuan jasoten dan moduan, badakigu Bizkaiko familiak sinadurak batzen dabilzala eta hainbat ekimen egin dituela eskatzeko umeen arreta goiztarra hobetzeko. Eskaintzen izan diran orduak gehiago ez murrizteko eskatzen dabilz, arreta goiztarreko itunpeko zentroetan egiten dan lana Berritzeguneko eta Osakidetzako zerbitzuakaz osogarria izan daiten, eta ez ordezkaturia, une honetan jazoten dan moduan. Arreta goiztarra 6 urtetik gorakoa izatea, adinbakoek kalidadezko gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntza jasoteko daukien eskubidea babestea, eta familiek beren seme-alabei eragiten deutseen hezkuntzako gizarte-zerbitzuen antolaketan eta funtzionamentuan modu aktiboan parte hartu ahal izatea. Eta, horregaitik, jakin gura dogu zer egingo dauen Aldundiak Bizkaiko familiek zabaltzen dabilzan eskaera horreei erantzuteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. A continuación tiene la palabra la señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días.

En el mismo sentido, hemos presentado una pregunta muy similar y no voy a repetir la explicación de la representante del Partido Popular, porque es similar, pero somos conscientes de que los diputados y sus Departamentos han estado reunidos con estas familias. Entonces, nos gustaría concretar un poco la pregunta y saber qué piensan hacer con los compromisos adquiridos en esa reunión y cómo van a garantizar los compromisos adquiridos en esa reunión. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias seora Duque Santacoloma. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Murillo Corzo.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora presidenta, junteros y junteras, buenos días.

Los miembros del Grupo Mixto y de Euskal Herria Bildu me preguntan por la atención temprana, y como bien ha dicho la señora. Duque Santacoloma, la semana pasada me enviamos un escrito similar al que ustedes mismos plantean en los contenidos de su pregunta, y lo recibimos en la oficina con mis compañeros de grupo, sobre el que hablamos. Por

lo tanto, el primer tema que quería traer aquí era ese, que estamos en contacto con esta familia y en ese sentido que estamos en marcha, tanto a través de reuniones, como por correo electrónico u otros medios telemáticos para seguir trabajando.

Bigarren gakoa, datuak, ze uste dot hori dala bigarren gakoa. 2022an agindutako arreta goiztarreko orduak 120.179 izan dira, 2021ean baino % 8 gehiago. Eta zalantzarik egon ez daiten, 2019aren aldean, % 10 gehiago, pandemiaren aurreko urtean, datuen bilakaera normalean gorabehera jakin batzuk eragin ditu eta. Baina beste datu bat gehiago, datu solte bat izan ez daiten, gainera, 2021era arte webgunean argitaratuta dagoz datuak, eskura daukazuz, 2021eko datuak emongo deusuedaz. Bideratutako aurrekontua, agindutako orduak igon dira, 2022an % 12 hazi da, eta ejekutautakoan arreta goiztarrerako 4.384.605 €tan kokatu da. Eta agindutako ordu guztiak asetzeko azken luzapena iazko gabonilaren 20an egin genduan, martitzen horretako Gobernu Kontseiluan. Eta zalantzarik egon ez daiten, 2019an, pandemiaren aurreko urtean, gauzatutakoa baino % 16 gehiago da 2022an.

Eta hori holan da, eta preskripzioa eta, beraz, egindako gastua esan dot, eta partida zabaldu behar izan dogu, arreta goiztarreko sistemak arreta goiztarreko balorazino-taldearen preskripzio teknikoan oinarrituta funtzionetan dauelako. Talde hori hezkuntza-, osasun- eta gizarte-arreta horretan inplikauta dagozan 3 sistemetako funtzionarioek osotzen dabe, EAEko arau-esparruak horreek koordinetako agintzen deuskulako. Eta, beraz, guk betearazo egiten dogu preskripzio hori, preskripzio teknikoa da.

Bizkaiko Foru Aldundiak gauzatzen dau, foru zerbitzu publiko itundu eta doakoaren bidez. 2017tik, foru zerbitzu publiko itundu eta doakoaren konfigurazino hori dauka familientzat, 2.555 2022ko abenduaren 31n, eta zalantzarik egon ez daiten, emaitza bi emoten ditue: bata, zerbitzua familiek oso ondo balorauta dagoala, 2021eko apirileko inkestak, 8,2ko batez besteko notea; eta inkestea egin daben familien % 96k arreta goiztiarreko zerbitzua gomendatuko leukeela.

Edozelan be, ez naz ohar horretan geratuko, kontuan hartu behar dogula uste badot be, ezpada konpromisoa daukagu, eta holan adierazoten deutsegu familiei, inguruabar bakotxa aztertze, kasu bakotxa, hauteman daben arazo bakotxa, familia bakotxak preskripzioan, kasuaren koordinazinoan, egiten deutsegun komunikazinoan, orokorrean ezarrita daukaguzan organuen bitartez aurkitzen dituan zailtasunak. Izan be, Foru Dekretu bat be badaukagu, partaidetza-organo bat antolatzen dauena, Arreta Goiztiarreko Batzorde Iraunkorra, arreta goiztarra jasoten daben 0 eta 6 urte bitarteko adinbakoen familiei berariaz gordetako bokala daukana. Beraz, 36/2019 Foru Dekretuak parte-hartze ordenaua eta arautua aurreikusten dau.

Edozelan be, esan deusuedan lez, harremanetan gagoz, eta harremanetan jarraitzen dogu. Azkenengoz gaur goizean euki dot aukerea gugaz harremanetan jarri dan familia horreetako bati galdera zehatz bati buruz erantzuteko.

Beraz, zer egingo dogu? Ba kasu bakotxa bialdu, eta Duque andreak galdera bat egin deust gai horrerri buruz: zer egin gura dogun, kasu bakotxa, ume bakotxaren inguruabar espezifikoak bialdu, talde teknikoak azterru daizan, eta, agindu zehatz bat egin bada be, barrikusi daijala, familiek, arreta goiztiarreko zentroek edo osasun-sistemak edo hezkuntza-sistemeak emondako datu barriak balegoz, eta, holan, barrikusi eta zuzendu, beharrezkoa bada. Eta bestela berretsi hori dala preskripzinorik onena, momentu jakin baten, garapenean arazoak daukiezan 0-6 urteko ume horreen bilakaerarako.

Uste dot garrantzi handiko kontua dala, izan be, hori da momentua, 0tik 6 urtera, eta 0tik 6ra bakarrik. Eta hori be adierazi dogu, une horretan garapenerako zailtasun horreek daukiezan umeen plastikotasun neuronalak oraindino garapenerako arazo horreek prebeniduteko eta bideratzeko aukerea emoten deuskulako. Hori dala eta, hasierako balorazino

preminazkoa da, eta horregaitik ez dogu eskas jokatuko familia horreek artatzeko baliabideetan ezelan bez.

Horregaitik, preskripzino guztiak finantzatzen dira, eta, beharrezkoa bada, azkenengo egunera arte, iazko azkenurreko Gobernu Kontseiluan kreditua handitu genduan, 3 sistemetako profesinonalek eta lanbideek egin ebezan preskripzino tekniko guztiei erantzuteko.

Elementu horreek familiakaz bepartekatu nebazan, eta alkarrizketaren eta lankidetzaren bidez bideratzen gabizala, Arreta Goiztiarreko Zerbitzu hori hobetzeko, ahal bada, ze hobetu daiteke. Bizkaian 6 urtera arte ipintea aurrendaria izan zan, eta halan izan jarraitu behar dau, eta neska-mutil horreentzat erantzun azkarra emon behar da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Murillo Corzo. En el turno de respuesta tiene la palabra la señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea.

Murillo jauna, zure azken esaldiagaz geratuko naz, hobetu egin daiteke. Hain zuzen be, hobetu egin daiteke, ze familiek aspalditik daukiez eskari horreek, eta argi dago eskari horreek ez dirala erantzun. Zuk dinozun moduan, 2019an baino % 10 ordu gehiago egon dira arreta goiztarrean. Zuk ondo dakizu, nire moduan, urteokaz be, pandemiagaz eta maskarakaz, arazo gehigarriak egon dirala 0 eta 6 urte bitarteko umeen artean; eta, beraz, seguruenik agindutako % 10 ordu gehiagoko hori ez da nahikoa. Eta familiek eskatzen dabena, eta artatzen diran umeen artean 120.000 ordu egiten badozuz, bakoxtagaz ez da hilean 4 ordura heltzen.

Eta hori da une honetan daukagun egoerea: lehen, saioak hilean 8 ordukoak ziran, gero 6ra pasau ziran, eta orain, beste balorazinorik egin barik, lau ordura eta gitxiagora pasetan doaz antza. Eta hori da familien eskaria; izan be, arreta goiztarra funtsezko kontua da, ume horreek hasieratik artatzea funtsezkoa dalako euren bilakaerarako. Eta arreta goiztarra eskubidea dalako, eta, nire ustez, Administrazioaren aldetik arreta goiztarrean inbertidutea, betebeharrak bat da, jakina.

Zuk dinozun beste eskari bat da 6 urtetik gora joatea, ze egia da Otik 6ra berba egiten dogunean, umeak, 6 urteagaz eskolatzea derrigorrezkoa danez, beste behar batzuk izatera pasetan dirala emoten dau. Baina egia da Osakidetza edo ikastetxeek emon leikien arretea Sailak emon leiken gizarte-laguntzagaz osagarria izan beharko litzatekela eta, beraz, eta esan deusudan moduan, zure azkenengo esaldiagaz geratu gura dot: “Oraindino bide luzea dago egiteko eta ako hobetzeko”. Guk, jakina, Talde Popularretik uste dogu Aldundiak emoten dauen arreta hori ez litzatekeela 6 urteagaz moztu behar, 6 urteagaz arazoak egoteari itxiko baleutsie lez. Beraz, arreta goiztiarreko itunpeko zentroetatik egiten dan lana Berritzeguneagaz eta Osakidetzagaz osatu beharko litzateke, eta ez horreek ordeztu, eta uste dot hori oraindino egiteko dagoala.

Zuk dinozu, “0 eta 6 urte bitartean, adituek plastikotasun neuronala aitatzen dabe”. Egia da lehen plastikotasun hori Otik 3ra zala esaten zana. Gero ezetz ebatzi zan, Otik 6ra. Eta orain aditu batzuek esaten dabe askoz harago doala, baita helduarora arte be. Eta, horren ondorioz, ikerketakaz edo orain dala urte batzuk emoten ziran arretakaz gagozala, eta ez goazela aurrera, eta ez deutsegula konponbiderik emoten familiei, eta, batez be, umei, behar dabean arretak. Izan be, dinogun moduan, 0-6 urte bitartean hasten da derrigorrezko eskolatzeko aldia, baina ume horreek eskola-ordutegitik kanpo be emon beharreko preminak daukiez, eta, halanda be, hor ezartzen da muga moduko bat, eta gizarte-arretak ez doa askoz harago.

Beraz, eskerrik asko mahaiburu andrea, denporea amaituta daukadalako, baina esan deusudan moduan, arreta goiztiarra emotea eskubidea da, Aldundiaren betebeharra da, eta espero daigun hobetu ahal izatea, oraindik asko dagoalako egiteko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Martínez Fernández. En el turno de respuesta también tiene la palabra la señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias.

Sí, usted ha mencionado la prescripción de horas, o que la prescripción ha crecido un porcentaje importante. Azken urte honetan preskripzio teknikoak ordutan gora egin dauela esan dozu, baina zalantza sortzen jaku: zenbat eskaera egon dira. Ze gure ustez, ume bakotzak jasoten dauzan orduak urtetik urtera murrizten joan badira, eskaria handitu egin dalako izango zan. Era berean, idatzizko galderak erregistrau doguz, familia horreek aitatzten daben ordu-murrizketa zergaitik jazo dan ulertzeko. Izan be, azken urteetan, lehen logopedarako eta psikologorako hilean gehienez 8 ordu egozala dinoe, eta fisioterapiarako gehienez 4 ordu, 12 ordu guztira, eta gaur egun gehienez 6 ordu eta lau ordu ei dira.

Eta familiek eskatzen daben gauza oso zehatz bat, Alderdi Popularreko bozeroaleak be aitatu dauena, Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren bitartez emoten diran orduen eta Berritzeguneen eta Osakidetzaren sistemaren artean emoten diranen arteko bateratuezintasun hori da. Gure ustez, sistema bateragarriak dira, eta familia horreek hezkuntza-zerbitzuaren, Berritzeguneen edo Osakidetzaren bidez arreteak eukiteak ez dau esan gura orduak murriztu behar diranik, edo ez leukez Arreta Goiztiarreko Zerbitzu honen arreta-orduak murriztu behar. Hori, alde batetik, familia horreek eskatzen daben gauza oso zehatza.

Gero, familia horreen parte hartzea Zerbitzu honetan be aitatu zan, eta erantzun jaku Arreta Goiztiarreko Batzorde bat dagoala, eta bertan familia horreek ordezkari bat daukiela. Jakin gura geunke persona hori zelan izentatzen dan, eta nahikoa dala uste dozu, edo familiek uste daben persona bat nahikoa dala 10.000 sinadura baino gehiago bildu dabean familia horreen guztien ahotsa izateko. Ez dabe adierazoten zerbitzua negatiboa danik, Zerbitzuan murrizketak egin dirala baino.

Eta, beste alde batetik, jarraitutasun hori be planteetan dabilz, ume horreek 6 urte beteten dituenean zerbitzua ez gelditutea, harago joatea baino. Pentsetan dot Sailean badakizuela 6 urtetik aurrera ume horreen jarraipena egiten daben programak dagozala, eta ea prest zagozen adin-muga hori gaintitzen daben programak aztertzeke. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Duque Santacoloma. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Murillo Corzo.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora presidenta, muchas gracias.

Para aclarar, y, quizás para reordenar algunas cosas. Arreta goiztarra garapenean zailtasunak, arazoak daukiezan 0 eta 6 urte bitarteko umeak eta euron familiak artatzea da. Hori da arreta goiztarra, 6 urte bete ondoren, beste kontu bat da. Eta arreta goiztarra da hezkuntza-sistemek ume eta familia horreekaz egiten dabena da, hezkuntza-sistemak egiten dauena, batzuetan osasun-sistemak egiten dauena Gurutzetako Ospitalean fisioterapia egiten dauenean, edo jaiobarrietan estimulazino neurologikoa dagoanean, hori be arreta goiztarra da.

Eta gero egiten doguna da, Gizarte Zerbitzuen Sistemako 3 sistemen argazkia osotzen dogu. Arreta goiztarra, beraz, 3 sistemek egiten dabena da, 0 eta 6 urteko tartean, garapenean zailtasunak daukiezan ume horrentzat eta euren familientzat.

6 urteren ostean, beste programa bat egin geinke, baina ebidentzia zientifikoak dino hor eraginkorragoa dala, eta arreta goiztarra deitu deusie Liburu Zurian. Hortik aurrera eraiki zan Arreta Goiztiarreko Sistema Euskadin. Sistema hori Bizkaian zabaldu genduan lehenengo, eta Euskadin 6 urtera arte, eta Estaduko gainerako lurraldeak 6 urtera arte luzatu dabe gero.

Baina 6etatik aurrera egin behar bada, beste modu batera deituko jake. Guk hirugarren sektoreko erakundeakaz programa espezializauak euki geinkez, kasurako, arreta espezializauko programak, 6 urtetik aurrera, edo aisialdia. Baina beste programa batzuk izango dira, ez daiguzan nahastu. Ebidentzia zientifikoaren eta arreta goiztarraren Liburu Zuriaren arabera, 0 urtetik 6ra bitartekoa da errazoi horreekaitik. Beste ebidentzia zientifiko bat gehitzen badozu, Martínez andrea, ziur nago Saileko profesinonalak eta inplikautako beste sistema bietako profesinonalak adi egongo dirala eta Arreta Goiztiarreko Euskadiko Batzorde Teknikoari proponiduko deusiela une honetan Euskadiko Arreta Goiztiarreko Sistema antolatzen daben oinarriak barrikusteko. Ondo.

Eta bigarren zatia, datuei buruzkoa. Aurretik, datu bat itxi dot emon barik erantzunean, ez nahasteko. Preskripzinoak hazten doaz, aurrekontuetako diru-izendapenak hazten doaz, jakina, baina 2022an datu bat dago, beharbada joeran aldaketa bat adierazoten hasi dana, jaiotza-tasaren jatsiereagaz be lotuta, beharbada: eskaerak 1.320ra bajatu ziran 2022an, 2021ean egon ziran 1.424akaz alderatuta. Ez dakit joera-aldaketea dan, baina beste datu bat da kontuan hartzeko, eta ez nahasteko lehenengo hitzaldian ez dot emon. Baina Duque andreak ekin egin dauenez ia zenbat eskari egon diran, ba 2022an 1.424 eskaritik 1.320ra jaitsi gara. Halanda be, ordu gehiago emon doguz eta aurrekontu handiago ipini dogu Bizkaiko arreta goiztarrerako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Murillo Corzo. También los puntos 7 y 8 los debatiremos conjuntamente.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000050](#))

**Autor:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Asunto:** El Impuesto Temporal de Solidaridad de las Grandes Fortunas.

**Documento** **Principal:** ([R.E.11/E/2023/0000050](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0004134](#))

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000057](#))

7.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000050SE](#))

**Egilea:** Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

**Gaia:** Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zerga

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000050SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/25/0004134](#))

8.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000057SE](#))



**Autor:** Benito Ziluaga, Xabier (EB)

**Asunto:** La aplicación en Euskadi del Impuesto de Solidaridad de las Grandes Fortunas.

**Documento** **Principal:**

[\(R.E.11/E/2023/0000057\)](#)

**Expediente:** [\(11/B/25/0004139\)](#)

**Egilea:** Benito Ziluaga, Xabier (EB)

**Gaia:** Fortuna Handien ganeko Alkartasun-Zerga Euskadin aplikatzea

**Dokumentu nagusia:** [\(11/E/2023/0000057SE\)](#)

**Espedientea:** [\(11/B/25/0004139\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Secretario. Por lo tanto, para plantear la pregunta, tiene la palabra la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días.

El pasado 27 de diciembre se reunió la Comisión Mixta de Concertación Económica en la que se acordó la inclusión del Impuesto de Solidaridad Temporal sobre las Grandes Fortunas como Impuesto Concertado de Normativa Autónoma en el Concierto Económico Vasco.

A este respecto, le solicitamos la respuesta oral a la siguiente pregunta al señor José María Iruarrizaga Artaraz, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas:

¿Cuáles son los pasos que va a dar la Diputación Foral de Bizkaia para poder cobrar el Impuesto Temporal de Solidaridad sobre las Grandes Fortunas en el ejercicio 2023?

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Urkaregi Etxepare. Y tiene la palabra el señor Benito Ziluaga para plantear la cuestión.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Gracias señora presidenta.

2022ko zemendiaren 25ean, Kongresuak gehiengoz onartu eban Fortuna Handien Aldi Baterako Alkartasun Zerga sortzeko Lege Proposamena. Ondoren, gabonilaren 27ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, Bizkaiko Foru Aldundia barruan dala, zerga hori Euskadin araudi autonomoko zerga itundu gisa ezartzea erabagi zan.

Elkarrekin Podemos-Izquierda Unidak uste dau zerga hori Euskadin, Estaduko gainerako lekuetan egingo dan lez, apliketea beharrezkoa eta positiboa dala justizia fiskalerako. Gure talde ekonomikoaren kalkuluen arabera, Estaduaren errekarquak 8,8 milioi euroko likidazino-oinarrietatik abiauta eragingo leuke, eta 10 milioi euro inguruko diru-bilketea sortuko leuke Bizkaian. Horregaitik, galdetzen dogu, noiz pentsetan dau Bizkaiko Foru Aldundiak bere araudi fiskala egokitzea Fortuna Handien Alkartasun Zergea apliketako? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Benito Ziluaga. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Iruarrizaga Artaraz.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Gracias señora presidenta. Buenos días. Egun on guztioi.

Bai EH Bildu taldetik, bai Elkargaz-Podemos taldetik, planteau deustazuezan galdera horreei erantzuteko, gurako neuke apur bat sakonago testuinguruan kokatzea zein izan zan denporazko karga horren jatorria, edo helburua, edo Estaduak sortu izanaren inguruan egon diran gorabeherak. Parte hartzaileetako batek esan dau zerga hori gabonilaren 27ko 38/2022 Legearen bidez sortu zala (gabonilaren 28ko Aldizkarian argitaratu zan), eta tributu gisa sortu zala, gitxienez bi urteko indarraldian ondare garrantzitsuak daukiezan zergadun guztiek errenten itunean parte hartzeko premian oinarrituta. 3 milioi euro izango ei dira. Horretarako, Lege Proposamen baten tramitazioan zuzenketa bat eginez, hau da, finantzen eta energiaren munduko bi berezi horreek eratzen dauzan Legearen bidez, beste artikulua bat sartzen da, hirugarrena, Estaduko Ondarearen ganeko Zergaren osogari izango dana, Ondarearen ganeko Zerga, oso-osorik Autonomia Erkidegoei lagata dagoena, eta adierazoten da zerga barri horren bidez lortzen dan diru-bilketa ez jakela autonomia-erkidegoei lagako.

Adierazo dan lez, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan gabonilaren 27 arratsaldean batu zan, eta zerga-figura barri hori Ekonomia Itunean zelan txertatzen dan adostu zan. Eta hori Itunaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren ondorioa da; izan be, honen moduko kasuetan, zerga-figura barriak sortzen diranean, administrazio biek Ekonomia Ituna egokitzea erabagi behar dabe, figura hori gure zerga-ordenamenduan sartu daiten.

Eta lortutako akordioan autortzen dana da, araudi autonomoko zerga itundu barri horretan, Ondarearen ganeko Zergarako Ekonomia Itunean ezarritako modu berean eskatuko dirala, Fortuna Handien Elkartasuneko aldi baterako zerga barriak, indarrean jarraitzen dauen ekitaldietarako ondorioakaz, hasieran 2022rako eta 2023rako aurreikusita dagoana.

Behin Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan akordio hori lortuta, akordio hori Ekonomia Itunean sartzeko, Ogasun Ministerioak Lege Proiektu bat egin behar dau alde aurretik eta beharrezko baldintza moduan. Lege-proiektu hori artikulua bakarrekoa izaten da, eta eranskin baten bidez gehitzen da, Ekonomia Itunaren aldaketa moduan. Lege-proiektu hori Ministroen Kontseiluak onartu behar dau, eta Gorte Nagusiei helarazo, irakurketa bakarreko prozeduraren bidez onartu deien, eta, holan, formalki sartu daiten Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordio hau. Hor hitzartzen da araugintza-ahalmen autonomoko zerga hau.

Beraz, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danean Kontzertu Ekonomikoaren aldaketa hori, une horretan hasi ahal izango dogu Foru Arauaren aurreproiektua egiteko prozedura, Gobernu Kontseiluaren proiektuak egiteko gure araudian daukaguzan epeak eta prozedurak errespetauz. Holan Aldundiaren Gobernu Kontseiluan proiektu bat egiteko eta Batzar Nagusiotara bialtzeko, izapidetu eta, halan badagokio, onartu ahal izango da, egin beharreko aldaketakaz.

Beraz, derrigorrezko izapide batzuen zain gagoz, eta, ulertuko dozuenez, edo ikusi zeinkenez, izapide guztiak ez dagoz Bizkaiko Foru Aldundiaren pentsudan, beste administrazio batzuen eta beste parlamentu batzuen esku baino.

Beraz, zehatzago erantzunez egin deustazuezan galderei, Aldundiak bere araudia egokitzeko asmoa dauen uneari buruz, uste dot mugari horreek guztiak bete arte itxaron behar dogula. Eta gagozan egoera kontuan hartuta, legealdi honen amaieran, dinot, ez urtearena,

legealdi honena baino, ez dot uste martiaren amaierarako gai izango garanik Batzar Nagusi honeetan onartutako foru-araudia eukiteko, bete beharreko baldintzak betez, ze gure kezketako bat segurtasun juridikoaren gaia be badalako.

Eta honaino gitxi gorabehera galderena. Baina gai bi dagoz jakitea gurako neukezana, zerga hori Bizkaian ezartea aztertzeke orduan. Izan be, alde batetik, autonomia-erkidegoak zalantzan jarten dabilz, eragina jasango dabelako antza, Zerga osoaren ganeko balizko segurtasun juridikorik ezaren gaia, eta, beraz, horrek ondorioak euki leikez, aurkeztuko diran balizko errekurtsoen emoitzen araber. Izan be, konstituzino-kontrakotasuneko errekursoak, atzeraeragineko gaiak, konfiskazinoko gaiak, etab. alegetan hasi dira.

Eta nire eretziz beste kontu bat be badago garrantzitsua. Izan be, zerga hori sortzeak zera ekarri dau, Estaduak nolabaiteko defentsa-neurri bat ezartea lagata daukien eta Lurralde Erkide osoan indarrean jarraitzen daben Ondarearen ganeko Zergaren tributazinoa murrizten edo ezabatzen daben autonomia-erkidegoen erabagiei aurre egiteko.

Eta zergaitik dinot hori? Ba zuek Fortuna Handien Aldi Baterako Alkartasun Zerga barriaren tarifak eta Ondarearen ganeko Zergaren tarifak begiratzen badozuez, bat datozelako. Beraz, Lurralde Erkidean, bai, bai, Benito jauna, bat datoz, begiratu ondo. Lurralde Erkidean, nori eragingo deutso horrek? Ondarearen ganeko Zerga jatsi daben autonomia-erkidegoei, eta zergadunei eragiten deutse; izan be, autonomia-erkidegoetan tarifa hori egokitu jakun lekuetan, eta batzuk dira, ez deutse zergadunei eragingo. Eta uste dot gai bi horrek garrantzitsuak izan behar dirala eta kontuan hartu behar dirala, nire ustez, Bizkaian holako Zerga bat ezarteko orduan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Iruarrizaga Artaraz. Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora presidenta.

Señor Iruarrizaga, yo he preguntado qué pasos va a dar la Diputación Foral de Bizkaia, eta erantzuna izan da itxaron egingo dogula ikusteko zer egingo dauen Espainiako Gobernuak Ekonomi Ituneko Lege Egitasmoa aldatzen dauenean, eta orduan hasiko garala zeozer egiten. Baina gero beste gauza bi esan dituzu. Baliabideak ez ditut aitatu.

Baina Gobernuak Ondarearen ganeko Zerga ezabatzen daben Autonomia Erkidegoen aurreko defentsa-neurri moduan sortu izanaren kontu hori, tira, interpretazino interesatua da, uste dot holan esan daitekeela. Izan be, denpora guztian zagoze esaten, eta Azpiazu jaunak esan eban. Azpiazu jaunak, urten zanean, edo Batzorde Mistoaren bileraren balorazinoa egin ebanean, esan eban “ezinbesteko eta lehentasunezko lehenengo pausua dala, zerga zuzena dalako”. Bere esanetan, “Hori esanda, euskal erakundeek, eta euroi eusten deusien alderdiek, lanean jarraituko dogu, eta euskal gizartearentzat onenak diran erabagiak hartuko ditugu”. Eta gaineratu eban, “Lurralde Historikoez daborduko indarrean daukiezala Ondarearen gaineko Zergak ahaztu barik”.

Hau da, barbarik bez Elkartasun Zerga hori gure zerga-sisteman sartzeko izapideak hasteko; guztiz kontrakoa. Eta gaur zuk bide beretik jo dozu. Zalantza moduko bat, Ondarearen ganeko Zerga daukagunez, ez dagoala zerga barri hori sartu beharrik.

Y EH Bildu dice que es imprescindible el Impuesto Solidario para introducirlo en nuestro sistema, kontua dalako ondasun asko daukien Bizkaiko persona gitxi batzuek gehiago ordaintzea larregizko ondare horregaitik.

Estamos hablando de los que tienen más de 3 millones de patrimonio y en Bizkaia, según los datos del Impuesto de Patrimonio del ejercicio 2020, los últimos publicados, serían 1.474 contribuyentes, un 20%, pero estos declaran el 53% del patrimonio.

Son pocos, pero muy ricos. Y a ellos les pedimos ese Impuesto de Solidaridad. En Bizkaia, ahora pagan entre el 1,5% y el 2%, y según el Impuesto de Solidaridad, entre el 1,7% y el 3,5%. Ez dira tarifa berberak, Iruarizaga jauna. 3 eta 5,3 milioi artean, egungo % 1,5aren orde % 1,7 ordaindu beharko leukie, % 0,2 soilik gehiago. 5,3 eta 10,7 milioi artean, % 1,75 beharrean % 2,1 ordainduko leukie, % 0,35 gehiago. Eta 10,7 milioitik gorako ondarea daukienez, egungo % 2aren orde, kuota % 3,5ekoa izango litzateke, hau da, gehien daukienei gehiago igoten jake. Eta Bizkaian 300 persona ingururi buruz berba egingo geunke, tarte desbardinak daukaguzalako.

Creo de verdad que no se les está pidiendo un esfuerzo terrible, sino demostrar solidaridad con las personas que están en una situación mucho peor que la suya. Y eso deberá incluirse en nuestro sistema tributario lo antes posible, respetando el procedimiento, no sé si hasta marzo, pero nuestra solicitud era integrarlo antes de diciembre. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Urkaregi Etxepare. En el turno de réplica, tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Lehenengo eta behin, buruagaz ezetz egin dot, pentsau dodalako Alkartasun Zerga honek Bizkaiko Ondarearen ganeko Zergaren zifra berberak dituala esango zenduala, horri buruz esan dot ezetz. Gero ikusi dot erregimen komunaz ibili zarala.

Egia da, ez dira kopuru bardinak. Zuk jarraitu beharreko prozedura esan deuskuzu, zain zagozela, eta arau-aldaketa hori egiteko asmoa aitatu dozu. Orain badakigu noiz, jakitea falta dogu zelan egingo dozuen arau-aldaketa hori, eta hori be zuon borondatearen edo hurrengo Foru Gobernuaren borondatearen arabera da. Izan be, jakina, Zergea Estaduko gainerako lekuetan aplikauko dan moduan apliketea izan daiteke, edo hori “zergatxo” bihurtzeko aukerea be egon daiteke, edo ezer be ez, deskafeinatuta geratuko dan zeozer.

Aitatu dozu, baita be, zerga hori Gobernuak autonomia erkidego batzuen kontra hartzen dauen defentsa-neurria dala. Hori baino gehiago dala uste dot. Begira, Oxfam Intermonen azkenengo txostenaren arabera, 2008an Estaduko aberastasun handieneko % 1ek aberastasun garbiaren % 15 eukan, eta 2020an zifra hori % 22raino igon zan. Orduan, hau ez da diru-bilketarako neurri bat eta kitu, ez da dirutza handiei eskean dabilen Administrazioa. Uste dot gatx horri aurre egiteko beharrezkoa dan neurria dala, gatx hori gero eta handiagoa dalako, desbardintasun soziala dalako, eta gero eta handiagoa dalako Bizkaian be, eta zifrek halan adierazoten dabe.

Desbardintasun soziala ez da inoiz ona izan ekonomia batentzat, ezta Bizkaikoarentzat be. Aberastasun-kontzentrazioak kontsumoa deprimitzen laguntzen dau, gizarte-babesbaketasuneko sentimentua sortzen dau, erakundeekiko konfiantzarik eza, eta ekologiarentzat be txarra dala esan daiteke, probauta dagoalako errenta altuenek CO2 gehiago isurtzen dabela.

Beraz, uste dot justizia fiskal handiagoa eta, beraz, desbardintasun txikiagoa daukan lurralde baten alde burukatuko behar dogula. Eta borondateari buruzko zalantzarena aitatu deusut, eta gustauko litxakit galdera horri erantzutea. Izan be, jakina, abendukoan, zure alderdia komunikabideetan ibili da esanez Euskadin ez dagoala hori aplikau beharrik, ez dala justizia fiskal handiagorik behar. Alderdi Sozialistak be gauza bera egin dau,

ez dakigu botoa emoteko egunean zein egongo dan, abenduaren 3ean ezetz esaten ebanagaz, edo abenduaren 17ko mitinean behar zala esaten ebanagaz. Ikusiko dogu, toketan danean, non dagoan bakotxa.

Iruarizaga jauna, zera proponiduko deusut: zerga hori zein neurritan aplikauko dozuen erabagiten dozuenean, argiak izateko, jakinarazo daizuela, eta gugan behar besteko babesa aurkituko dozue, Estaduko ganerako lekuetan aplikauko dan moduan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Benito Ziluaga. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Iruarizaga Artaraz.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Argi berba egiten ahalegindu naz, baina ikusten dot beharbada ez nazela ondo azaltzen, Urkaregi andrea, edo ez deustazu aitu gura. Hori sarritan gertatzen jaku hemen guri.

Ea, Aldundi honek argi eta garbi dauka Arau bat ekarri gura dauela, edo Foru Arau bat egin gura dauela Fortuna Handien zerga iragankor bategaz. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordioa dago, araugintzarako gaitasuna emoten deuskuna, eta Batzar Nagusiotara ekarri beharko da Foru Arau proiektu bat, zerga hori jasoten dauena.

Nire oharrak dira, zerga hau egiteko orduan, eta danok zerga horri buruz pentsetako orduan, nire gogoeta personal bi egin dodazala: auziena, eta Estaduan zerga barriagaz eta Ondarearen ganeko Zergagaz dagozan tarifei begiratzen badeutsegu, tarifak bat badatozala.

Horregaitik dinot Estaduak egin dauen neurri defentsiboa dala, Ondarearen gaineko Zergea aldatu ez dauen Autonomia Erkidegoetan 3 milioitik gorako zergadunek ez dabelako gehiago ordainduko Zerga horregaitik. Baina, tira, gogoeta bat da, baina Batzar honeetarako Foru Arau proiektu bat prestau beharko da, Zerga oso bat prestau beharko da, zein dan zerga-oinarria, zein dan helburua, subjektu pasiboa, zein dan tarifa, ze tarte dagozan, etab., eta Batzar honeetara ekarriko da, eta Batzar Nagusiotako taldeak izango dira Bizkaian tributu hori zelan aplikauko dan erabagiko dabenak, aurrikusita dagoan urte bietan, printzipioz.

Zer helarazo gura izan deusuet nik be nire kontura? eta hau noiz hasiko da? Esaten deusut, tira, Estaduko Aldizkari Ofizialean onartzea behar dogu, eta Itunaren aldaketea agertzea prozedura hasteko. Eta orduan hasi geinke prozedura formalki, hasiko dogun prozedura horri segurtasun juridikoa emonez.

Posible da hori guztia hemendik martira egin eta prozedura hori amaitzea? Nik gatx ikusten dot, baina ulertuko dozuenez, gainera, ez dago gure esku, aldez aurreko eta beharrezko urratsak egin arte itxaron behar dogu. Beraz, baina, tira, ez dagiala zalantza izpirik egon Bizkaiko Foru Aldundi honek Foru Arau proiektu bat ekarriko dauela, Fortuna Handien Alkartasun Zerga honen edukia zein dan jasoz, 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako. Eta, hortik aurrera, Aldundiak Batzar Nagusiotara ekarriko dau, Batzar Nagusiotako batzarkide-taldeek hartuko ditue erabagiak. Alderdiek zer esaten daben, Benito jauna, alderdiek zer uste daben, ni ez naz horretan sartuko, ni oraingoz Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun diputadua naz, eta horri erantzun behar deusat. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Iruarizaga Artaraz.

Punto 9 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000052](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Las medidas que tomará la Diputación Foral de Bizkaia para dar respuesta a la demanda de incremento de las partidas económicas de diversas entidades sociales.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2023/0000052](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0004136](#))

9.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000052SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Hainbat gizarte-erakunderen partida ekonomikoak handitzeko eskaerari erantzuteko Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko dituan neurriak

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000052SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/25/0004136](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Dakizuenez, Elkarrekin Podemos-IUk, aurrekontu honeek aurkezterakoan, ardurea agertu eban, ikusi gendualako foru-erantzukizun publikoko zerbitzuak kudeatzen dituen erakundeen partida ekonomikoak izoztuta egozala, kasu batzuetan baita orain dala 7 urte baino gehiagotik be. Pandemiak 2020tik sortutako gailak eta prezioen igoerak sortutako gailak kontuan hartuta, batez be energiarena edo gasarena, ukatuezina da oin dala 7 urte nahikoa izan eitekeana desgaitasuna daukien edo gizarte bazterkeria egoeran dagozan 4.000 erabiltzaile baino gehiagori estaldura emoteko, gaur egun 2023an, ez dala nahikoa. Eta ez da nahikoa lan-baldintza duinak bermatzeko be.

Argi dago baldintza horreetan erakundeek ezin izango deusielako aurre egin jagoken soldata-igoerari. Diputaduari galdetu gura deusaguna da ea aurrekontuko partida horreek handituko dituan zerbitzu horreen jarraipena bermatu ahal izateko, horixe esaten dabelako erakundeek eurek une honetan arriskuan daukiela. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Murillo Corzo.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora presidenta, junteros y junteras, buenos días de nuevo.

La señora De Madariaga me pregunta por las entidades sociales que gestionan el Servicio Social, los servicios de responsabilidad pública que ellos gestionan, en concreto.

Zeozelan, joan dan zemendiaren 9an, Batzar Nagusi honeetan Gizarte Ekintzako Aurrekontuak aurkeztu ziran Ogasuneko Batzorde Berezian, gaur egin dozun ahozko erantzun-eskearen replikan erantzun neutsun, baina gai horreetan zelan jokutzen dogun laburpen eskematiko bat egiten ahaleginduko naz. Izan be, oro har, hirugarren sektoreko erakundeek kudeatzen dituen erantzukizun publikoko zerbitzuei lotutako programak, zure itaunean aitatzen dozuzanak, hazi egin dira, eta hazi dira esate baterako, desgaitasunarenean % 5,53 Desgaitasunaren Programan, hirugarren sektoreko erakundeakaz hitzartutako zerbitzuakaz; FEVASeko batzuk hazi dira Foru Gobernutik Batzar Nagusiotara ekarri genduan eta azkenean hemen onartu zenduen Aurrekontuen proposamenean. Horrek emoten deusku tartea, orain kontetan deusuedan metodologia hau aplikauta, hitzarmenak, hitzarmenen errealidadea, tresna juridikoa eta horreen azpian dagoan errealidadea, hau da, zerbitzuaren kostuak, bateratzeko. Baina, lehenengo eta behin, alkarrizketaren bidez izan behar dau, esan egin behar deuskue, eta etenbako alkarrizketea daukagu erakundeakaz, jakina, zerbitzu publikoaren kudeaketeagaitik beragaitik, baina baita gaur egungo inflazino-testuinguruetan euki leikiezan zailtasunakaitik be.

Baina kostuen igoera hori auditorietan dokumentau eta jaso behar da. Dokumentauta eta justifikauta geratzen diranean, hortik abiauta, abiapuntua dira eurekaz foru zerbitzu publikoa emoteko daukaguzan lankidetzta hitzarmenak barrikusteko. 2022an zehar egin dogu, eta 2021ean be egin izan da, eta holan eusten deusagu, eta horixe da Gizarte Zerbitzuen Legeak 61. artikuluan erabilten dauen berbea, gizarte ekimenak zerbitzu publikoen prestazinoan dauen parte-hartzeaz berba egiten dauenean, erantzukizun publikoko zerbitzu horreei eusten deutsegu funts publikoakaz.

Beraz, alkarrizketa, kostu horreek islatzen dituen auditoriak eta hitzarmenen berrikuspena. Hori da logikea eta horixe da zerbitzu teknikoetatik egin behar dogun etenbako lana, eta gero Ogasun Saileko Fiskalizazino Zerbitzutik pasau behar dogu, zerbitzu publikoaren errealidadea bere kostuakaz egokitzeko, eta holan erantzukizun publikoko zerbitzu horreetarako lankidetzta-hitzarmenetan islatzen dogu. Zuk aitatu dozuzan Gizardatzegaz egin dogu, alkarrizketan hasita, 2021eko irailean hasi zan, 2021eko irailaren 16an, eta 2023ko hitzarmenetan amaitu dira. Eta Lantegi Batuakegaz be egiten gabiliz, zuk aitatu dozunez, joan dan urriaren 17tik, eta azken bilera teknikoa 2023ko urtarrilaren 11n egin dabe.

Beraz, hori da metodologia, hori da lana, etenbakoa, iraunkorra, berrikustekoa, zuek Batzar Nagusi honeetan onartu zenduen Aurrekontuen Foru Arau honek egiten jarraitzeko aukerea emoten deuskuna. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Murillo Corzo. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta.

Eskerrik asko, Murillo jauna, zure azalpenakaitik. Begira, alkarrizketa jarraikoa dsila dinozu. Guk be etenbako alkarrizketa daukagu. Zuk dinozun moduan, 2021eko irailean egon zara, 2022ko urriaren 17an, eta erakunde horreen alegazinoak 2022ko abendukoak dira. Hau da, alkarrizketea egongo zan, baina Aldundiak ez deutso eskaerari erantzun, hori meridianoa da.

2023ko urtarrilean, talde politiko honek gizarte erakundeakaz berba egin dau, eta oraindino ez dago erantzunik. Orduan, esaten deusuguna da, zuok berba egiten dozue,

nik ez dot zalantzan jarriko, baina ez dozue ezer egiten konpondu ahal izateko. Hori da, funtsean, arazoa.

Orduan, bi gai eskatu dira. Horniduren prezioak nabarmen igon dira, erakunde batzuek daborduko eginda daukiez kontuk, memoria ekonomiko hori aurkeztu dabe eta, eta elektrizidadean % 72ko, garraioan % 13ko, gasean % 32ko, alokairuan % 8ko eta elikaduran % 12ko igoerak dira. Zuk hitzarmen batzuetan igon dozuela dinozun % 5 horretatik oso urrun. Batzuetan, neuk dinotsut; oso gitxitan, oso proporzino txikerran, zure Sailak eta Gizarteratze Sailak erakunde horreekaz daukiezan hitzarmen guztiakaz alderatuta. Hau da, ez da nahikoa.

Eta gauza bera gertatzen da, ez bakarrik horniduretan igoera egon dalako, baita KPIa asko igon dalako be, beharginei eragiten deusena, eta hori be ez da kontuan hartzen, eta 2019tik aurrera erosteko ahalmenaren galerea dakarre, kasu batzuetan aurreraeragin-egoeran dagozan hitzarmenak dagozalako. Hau da, zer konponbide emongo deutse Aldundi honek 2023an erakunde horreei? Alkarrizketea esatea, uste dot gure taldearentzat ez dala nahikoa, baina gizarte-erakundeentzat be ez. Zer eskatzen deusue? Erantzun bat, ahal dala legealdi honetarako, martia amaitu baino lehen.

Hitzarmenetan bertan klausulak daukazuz, hitzarmenetan aldaketa horreek egin ahal izateko. Legez posible dala esan gura dot. Begira holan bada, zuek eta guk, aurrekontuen negoziazioan, hitzartuta geunkan aurrekontu-partida horreek handitzeko aukerea. Abenduan gugaz ados bazengozan hori arazoa zala eta konponbidea emon behar jakola, gaur, urtarrilak 25, erakunde horreek zergaitik ez daukie ezelango erantzunik. Posible da aurrera eroatea, bazala esan zenduan. Ba, jarri praktikan, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación tiene la palabra el señor Murillo Corzo.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Gracias señora presidenta.

Aurreko galdera bien erantzunen ildo beretik. Datu batzuk, esan dot, 2021eko irailaren 16an prozesu bat hasi genduan Gizardatzegaz, zure galdera zehatzean aitatu dozun erakunde bategaz. Aurrekontu-izapidearen ostean gauza gehiago jazo dira, eta barriro zagozienerako galdetu, abenduaren 22ko, abenduaren 29ko eta urtarrilaren 23ko batzarrei buruz, galdetu. Eta Lantegi Batuak-i be galdetu urtarrilaren 11z, urriaren 17aren ondoren, esan gura dot. Eta alkarrizketa guztiek, batzuek diligentziak daukiez eta beste batzuek ez, zerbitzuak daukiez. Alkarrizketa eta datu gehiago.

Batzar Nagusioi Gobernu Kontseilura eroandako hitzarmenen aldaketa batzuk jakinarazo jakie, bolumena dala-ta urteartekoetan aldaketak behar dabezalako, etab. etab. Ba 2022an jaso dozuezan jakinarazpen horreek guztiak barrikusten doguzan datuak dira, kostuak eta zerbitzu publikoan gertatzen dana ikusita, batzuetan plazak behar doguzalako, beste batzuetan erabiltzaileen profila eta arreta-beharrak aldatzen diralako, hitzarmenak aldatu behar doguz. Zerbitzu publikoaren azpian dagozan faktore horreen guztien babesean aldatzen doguz, eta hori gure erantzukizuna da, eta guk eutsi egin gura deutsegu, Gizarte Zerbitzuen Legearen 61.1 artikulua dinoan moduan. Kapitulu horretan ekimen sozialak zerbitzu publikoak emoten daukan parte hartzea aitutzen da. Batzuetan emoten deust ez deusazuela kasurik egin gura, edo kendu gura dozuela. Muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Murillo Corzo.

Punto 10 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000056](#))

**Autor:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Asunto:** Las futuras licitaciones del servicio Bizkaibus.

**Documento**

([R.E.11/E/2023/0000056](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0004138](#))

**Principal:**

10.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000056SE](#))

**Egilea:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Gaia:** Bizkaibus zerbitzuaren etorkizuneko lizitazioak

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2023/0000056SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/25/0004138](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Tiene la palabra el señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias señora presidenta. Ya vamos con el último punto.

El servicio Bizkaibus está formado por 6 concesiones, Eusko Trenbideak, Avanza Durangaldea, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus, Busturialdea-Lea Artibai Bus, Vectalia Enkarterri, Vectalia Txorierrri. Y cada una de ellas es explotada por la sociedad gestora correspondiente, las que he citado. Cinco de estas concesiones tienen un contrato iniciado en 2014 y vigente por 10 años. Por lo tanto, en 2024 la Diputación deberá decidir si prorroga esos contratos que han supuesto un conflicto permanente y un coste económico excesivo para las arcas vizcaínas, o si hará una nueva licitación del servicio acorde con la situación actual y que ponga fin de una vez por todas a todos los problemas existentes.

Por ello, nos parece importante conocer la propuesta que su Departamento, señor Gómez Viar, realiza para los próximos años al servicio Bizkaibus. Y qué propuestas quiere hacer este diputado para que en futuros pliegos dejen de ser herencia envenenada o patata caliente.

Por ello, planteamos la siguiente pregunta de respuesta oral: ¿Qué avances ha realizado su Departamento en relación con los nuevos pliegos en esta legislatura? Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Méndez Urigoitia. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Buenos días de nuevo.

Mendez jauna, Saila lanean hasi da emakida horreen lizitazioan. Sailaren urteko planean zerbitzu-kontratu bat sartu dogu, Bizkaibusen emakida barrien diseinu barria egiteko aholkularitza-zerbitzua lizitetako eta emakida guztien aurreproiektuak egiteko, eta ez deustudaz barriri aitatu, ez deustalako denporarik emongo.

Une honetan, kontratazio-prozedura abian jartzeko pleguak prestetan dabilz. Prozesu hori aurtengo lehenengo hiruhilekoaren amaieran hasi daiteke. Beraz, epeak, aurtengo hirugarren hiruhilekoan, proiektu teknikoen prestatzen hastea. 2024ko lehenengo seiuhilekoan, Administrazioa lanean dabil aurreproiektuak onartzeko, edegiteko, jente-aurreko entzunaldiaren izapidea egiteko, alegazioak ebazteko eta proiektuak onartzeko prozesuan. Eta, aldi berean, laguntza teknikoa pleguak, preskripzio teknikoak eta administrazio-klausulak prestetan dabil. 2024ko hirugarren hiruhilekoan hasi leiteke 5 emakiden lizitazio-prozedura.

Beraz, emakida barriak 2025eko gabonilaren hasieran egon leitekez zerbitzuan, hau da, gaur eguneko emakiden emakida-epea amaitu eta 12 hilebete igaro baino lehen.

Zergaitik kontratau behar da laguntza teknikoa?, zintzotasunagatik eta erantzukizunagatik, aurrekontuen daukan garrantzia kontuan hartuta, eta diputadu honek funtsezkotzat jotzen dituan 3 errazoi dirala eta. Bata, zerbitzu-proiektuak barrikusi behar doguzalako, garraio-sarearen egungo errealidadera eguneratzeko, eta errepedeko garraio-ereduan funtsezko aldaketak dakarrezan lege-barrikuntzetara egokitzeko, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko zezeilaren 21eko 4/2019 Legea eta ha garatzen dauen gabonilaren 10eko 254/2020 Dekretua, kontratu barrien barruan barritzen diran ibilgailu guztiak erregai alternatibokoak izatera behartzen dauana. Bigarren arrazoa, beharrezkoa dalako Bizkaibuseko linea guztien azterketa sakona egitea, zerbitzuaren kalidadea eta iraunkortasuna ahalik eta handiena izateko, eskura dagozan baliabideen eraginkortasuna optimizetako eta garraio publikoaren mobikortasunerako eta erabilgarritasunerako eskubidea beteten dala bermatzeko. Gogorarazoten deustut Bizkaibus dala lurralde osoa batzen dauen Bizkaiko garraio bide publiko bakarra, kohesionetan dauena, eta, kasu askotan, udalerritik kanpo mobiduteko modu bakarra.

Eta hirugarrena, lehentasunezkoa dalako aurreko pleguen eredia aldatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea onartu zanetik izan diran lege-aldaketetara egokitzeko eta kontratu horreen bizitzan zehar hauteman doguzan hobekuntza guztiak sartzeko. Adibidez, arriskutik eta menturatik eragiketa-arriskuaren transferentziara pasetea. Adibidez, bidaiari-kopurua jasten bada, emakidaduna zigortu daiala, prezioak barrikusteko formula, bide batez esateko, errege-dekretu baten ezarrita dagoena. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Gómez Viar. Tiene la palabra el señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo señora presidenta. Gracias también al diputado señor Gómez Viar, porque esta vez sí que ha concretado, y no he tenido tiempo de apuntar tanta fecha, pero lo he intentado.

Legegintzaldiaren hasieratik autortu deustugu, Gómez Viar jauna, eta horri buruz eztabaidatu dogu, eta nire lehenengo agerraldian esan dot. Hasierako kasuan, Reyes jauna lehenengo, patata bero bat topau zenduen, Garraioetako Foru Diputatuak, Euzko Alderdi Jeltzaleko Itziar Garamendi andreak, prestau ebana. Eta uste dogu sortu zan arazo horri 10 urte geroago konponbidea emon behar jakola.

Zuk jarraibide batzuk ezarri dozuz, ibilpide bat markau dozu, zuzena iruditzen jat. Zure eretxia jakin gura neuke, zure ustez, ea, esan dozunez, baliteke, egin leiteke, egin leiteke, ea zu 'egin leiteke' hori 'izango da' bihurtzearen aldekoa zaran, hau da, benetan uste dozun 2024an, edo 2025ean, zuk esan dozun moduan, lizitazio hori martxan egon leiteken, ze luzapen-aukera bat dago, zuek gauzatu zeinkiezana edo ez.

Eta zure eretxi personala jakin gura neuke, jakinda esan dozuzan epe asko eta asko, hurrengo legegintzaldian egongo dirala, baina gaur egun diputadu zaran ezker. Horregaitik esan edo erabili dot prognosis berbea, aurrera begira zer egingo zeunken ikusteko. Izan be, ezin dogu ahaztu garraio-arazo guztiei konponbidea emon beharreko pleguak izateko ziranak, Bizkaian autobusagaz lotutakoak behintzat, guztiz kontrakoa izan dirala, arazo-iturri garrantzitsua. Arazo iturri horretan, gaur egun, garraio-enpresa gehienak dagoz greba-kanpaina baten, izan be, kontzesinodun batzuek, multinazional batzuek, gaur egun, eta lehenago izentau dodaz, uko egiten deusie hitzarmen horreek eguneratzeari eta negoziatzeari. Plantillek baldintza berberak eskatzen dabez, Bizkaibusen lan egiten daben 1.400 persona baino gehiagok eskubide berberak euki daiezan. Uste dogu hori, kontratau dala esan dozun aholkularitza horretan, kontuan hartzeko moduko alderdietako bat dala.

Kontuan hartu ahal izateko planteauko deusudazan beste alderdi batzuk. Ze zuk laguntza teknikoaren beharraz berba egiten deuskuzu, eta ni bat nator, beharrezkoa izan daiteke. Baina, nire ustez, laguntza tekniko horregaz batera, idea horreek emon leikiezan sektoreko kolektiboek be parte hartu behar dabe. Ez dakidanez holan izango dan, talde horreek guri helarazo deuskuezan 4 edo 5 idea aitatzeko aukerea hartuko dot, zuk ondo ikusten badozu, laguntza tekniko horrek euki daizan: hobekuntzak zerbitzuaren prestazinoaren jarraipenean; egindako mantentze-lanen kontrol handiagoo; floten egoeraren kontrol zorrotza; enpresa horreen ikuskapen- eta kontrol-sistemea hobetzea. Sistema horrek ez dau ahalbidetu behar multinazionalak izatea irabaziak lortzen dabezanak, ezpada bizkaitar guztion aurrekontuko diru horren helburua zerbitzua bera eta bertan lan egiten daben personak hobetzeko erabiltea.

Esan deusut, eta honegaz amaituko dot, eta ez EH Bilduk bakarrik, Kontuen Epaitegiak be esan dau 4 urte honeetan, aurrekontuak handitu egin diralako, eta BETEANek egindako auditoretza-txostenak jasoten dira. Uste dogu azterketea argia dala, ondorioak be bai, Bizkaibusen zerbitzua uste dot danok bat gatzala hobetzeko modukoa dala. Halanda ze, ekin deiogun lanari, nik hobetzeko hainbat aukera emon deusudaz, espero dot bertan behera ez geratzea, eta espero dot laguntza edo aholkularitza teknikoaren bidez egingo dozun lan horretan kontuan hartzea garraio-sektoreko kolektiboen eta plantillen parte-hartzea be. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Méndez Urigoitia. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Gracias mahaiburu andrea.

Tira, Méndez jauna, bakarrik esan emon deusudazan epeak barriro emongo deusudazala, eta zuk egindako ekarpenen bat ez deustanez idazteko astirik emon, jasoko doguz. Baina esan gura dot, askotan entzun deustazu, hemen, politikan, karguagaz doa, ona eta txarra oinordetzan hartzen dira.

Orduan, nik ulertzen dot nire aurretik egon diranak plegurik onenak egiten ahalegindu dirala, eta niri be gustauko litxakit, hemen ez nagoenean, datorrenak esatea dana

asmo onenagaz egin dogula. Baina gauza bat esango deusut, plegu bat, Aldundiak daukan gauzarik garrantzitsuena, ia 750 milioigaz, nik uste dot merezidu dauela asistentzia hori emotea. Eta, gainera, denpora amaitzen joata, adibide batzuk jarriko deusudaz. Flota elektrifikauko dogu, teknologiaren alde egingo dogu, kilometroko ordaintzen jarraituko dogu, inor joan ez arren, bikoiztasunak murriztuko doguz.

Txartel bakar estrategikoaren ondorioakaz gagoz, tarifa-eremuak. Dentsidade handiko korridoreak sortuko doguz autobusek jentea hartu daien potentzial hori, masa kritiko hori daukien lekuetan. Hau da, lantzen gabilzan guztia, prozesuari ekin deusagu eta, errege batek esan eban lez, Parisek ondo balio dau meza bat, ba nik uste dot plegu honeek ondo balio dabela hilebete bateko atzerapena be, ondo egiteko asmoz. Ondo ez egoan zeozer errepikau gura badogu, errazena litzateke. Nik, erantzukizunagaitik, ez dot egingo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Gómez Viar.

Y terminado el orden del día, se da por finalizada la Junta General. Buen día para todos.

Batzarra 12:09an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:09 horas.